

KOADERNOA

Lope de Vegak ez zuen bat-batean
bota bere sonetoa XABIER IZAGA > 21

«MESIAS SARRITAN»: Kanta
ospetsuaren 130. urteurrenean,
Bartolome Ertzilla berreskuratzen > 22

2022ko abenduaren 23a | XVI. urtea • 805. zenbakia
0,50 euro

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



ELBIRA ZIPITRIA, ANDEREÑOEN ANDEREÑO

ITZALEAN LAN EGIN ZUEN, ETA ILUNTASUNEAN ARGIA PIZTU. HAURREN ADIMENAK ESNATU ETA HAIEN JAKIN-MINAK XAXATU ZITUEN. BIDELAGUN IZATERA DEITU ZITUEN FRANKISMOAREN LEHEN URRATSETAN DONOSTIAKO IRAKASLE ESKOLATIK, TITULUA JASO BERRITAN, ATERA ZIREN ZENBAIT EMAKUME. 40 URTE BETEKO DIRA HIL ZENETIK. > 12 Andoni ZINKUNEGI



4



8



Matxinada Iranen: Aiatolen aurka borrokatzen diren emakume kurduak 04

Erromako Appia Anticako harrobiko lurpeko galeriak birgaitu egin dituzte 08

Elbira Zipitria, frankismo garaian andereñoen iturburu izan zen emakume ausarta 12

Ingurumen aztarna: Ez dugu lurreko bizitza suntsituko (I) 19

Bartolome Ertzilla berreskuratuz, «Messias sarritan» abestiak 130 urte beteko dituenen 22

Pantaila txikian: 2022ko telesailik onenak 26

Juantxo Egañaren behatzulotik 31



22



26

SINADURAK:

- 03 **Maite Ubiria Beaumont:** Gure demokrazia helburu
- 10 **Saioa Aginako Lamarain:** Kosta ahala kosta
- 11 **Iñaki Altuna:** Estatua demokratizatzeko ezintasuna egiaztatuz
- 18 **Amaia Ballesteros**
- 20 **Itziar Elizondo Iriarte:** Hitzez hitz
- 21 **Xabier Izaga Gonzalez:** Lope de Vegak ez zuen bat-batean bota bere sonetoa
- 25 **Miren Azkarate Badiola:** Dena aldatzen da?
- 25 **Asier Aiestaran:** Olentzero eta Mari Domingi maiteak:
- 30 **Edurne Larraza Mendiluze:** Kathleen Booth (jaiotzez Britten)



{ datorrena } **Maite Ubiria Beaumont**

Gure demokrazia helburu, kolpez kolpe

Aparra noiz jaitsiko, olatua noraino igoko. Erakunde sistemaren bioeritmoak asaldaturik daude. Nork esango zuen algoritmoen garaian sen onaren falta hainbeste, hain azkar sumatuko genuela. Zerbitzu publikoaren zentzua, garaian garaiko asmoen eta harrizko oholtxoetan idatzitako arauen arteko dialektika sortzaileak harribitxi bilakatu dira. Zinez zaila bilakatu zaigu harrabotsen atzean kukutzen diren hutsuneei erreparatuz arnasa luzeko gogoetari bidea ematea. Dena da zurrunbilo, dena de urgentzia.

Ardurak zehazteko ariketak inoiz baino garrantzi handiagoa dauka. Eta ariketa horren mesedetan, «inoiz ez da gertatu» aitzakia komun zulotik bota eta konexioen bilajo behar da, ezinbestean.

Amankomunekoaren eremua ahulduz, demokrazia higitzeko operazioa aspaldian abian eman zen. Nahiz eta iluntasunean jarduten duten logikak ez diren garai guztietan berdin azaldu, nahiz eta une oro hain adierazgarri ez agertu.

Onar dezagun, horretan ere, garai gordinetatik fintasun gutxiko garaietara igarotzea egokitu zaigula. Are, bi estatuen artean zeini begiratu lehenago hautatzeko orduan, hor ere koxka.

Ez da edonolako Elisabeth Borne frantziar lehen ministroak eginiko marka. Hamar aldiz baliatu du guztiz ezohikoa den Konstituzioaren artikulua bat bere egitasmoak indarrez onarrarazteko. Elkarrizketa eta akordioaren ustezko tenplura joan eta hamar aldiz zapaldu du 49.3 artikulua botoia. Ondorioz, demokrazia xahutzaren truke, bai aurrekontu orokorrak bai Gizarte Segurantzako kontuak ere baditu Emmanuel Macronek.

49.3 artikulua erabilera konpultsiboari esker, herritarren botoen bidez eman ez dioten erabateko gehiengo ordezkatu du Emmanuel Macronek. Alegia, herri subiranotasunari bizkar emanez, kudeaketa pertsonalizatu du. “Qatargate” eskandaluaren olatua noraino igoko, eta

aparra noiz jaitsiko garen honetan, frantziar aurrekontuetan epelean babestu ditu Macronek gertukoak. Ezohiko mozkinak lortu dituzten enpresa handiek ez diote inolako soiltasun plani beldurrik izan beharko. Aste berean lau aldiz Paris eta Doha arteko hegaldia hartu duen presidenteak atea ondo babestu du.

Akziodunen gaineko mozkinak ezin dira ukitu, bai ordea langileek beren formaziorako lan eginez osatzen duten funtsa. Hautua, aldez aurretiaz ezaguna izanik ere, ezin da inondik inora banalizatu. Macronek ez duelako oraingo honetan bere ideologiaren ikur den egitasmoa herritarrengandik jasotako sostenguari esker aitzineratu, baizik eta sistemak aurreikusten duen salbuespen neurria bere mesedetan erabiliz.

Ezkerrak «demokraziaren ukaziotzat» hartzen du hexagonoan exekutiboak legebiltzarra isilaraztea (49.3). Demokrazia formalaren ibilbidea laburragoa duen Estatu espainolean, kolpea salatu dute

Hala, legebiltzarkideei botoa emateko eskubidea hustuz, Asanblea Nazionalako talde gehienek babesten zuten neurria alboratu ahal izan du gehiengo nahikoa ez duen exekutiboak. «Demokraziaren ukazioa» deitzen diote hexagonoan herritarrek idatzitako lerroak okertzeko praktikari. Espainiar estatuan, demokrazia formalaren aroa dezente laburragoa izanik ere, kolpe gisa salatu dute eskuin politikoaren babespean botere judizialak botere legegilean atzaparra sartu izana.

Kolpez kolpe, Katalunian eta Euskal Herrian eskubi-deak jazarritz zabaldu zitzaion atea «inoiz ez da gertatu» delakoari, eta hori benetan aintzat hartu gabe, zaila izango da arazoaren muinari neurria hartuz, aterabideak aurkitzea. •

MATXINADA IRANEN

Aiatolen aurka borrokatzen diren emakume kurduak

4 X4 batean ere ordu dezente behar dira, mendian zehar, aurretik adostutako puntura iristeko. Autoa gelditu eta pagadi sendo bat zeharkatu dugu jarraian, oinez. Droneen hotsa etengabea da gure buruen gainean, baina zuhaitzek haien bistatik babesten gaituzte. Bertan, PJAK (Kurdistango Bizitza Librerako Alderdia) gerlariak ditugu zain.

Iran eta Irak arteko muga zeharkatzen duten mendietan gaude, Kurdistango bihotz geografikoan, hain zuzen. Ezin ditugu koordinatuak eman, ez eta argazkiak atera ere milizianoei edo haien kokapenari bu-

PROTESTAN SOZIALA / Karlos Zurutuza

Irango protestak iragan irailean piztu arren, emakume kurduak hamarkada ugari eman dituzte teokrazia xiitaren kontrako borroka sutuan. Oraingo matxinada aurrekoekin alderatuta oso desberdina dela uste dute. Irango herri guztietako jendea biltzen du eta sistema osoa aldatzea du helburu.

ruzko pistak ematen dituzten erreferentzia espazialei. Hori da tratua.

PJAK taldea Irango kurduak osatzen dute nagusiki. Herrialdea demokratizatzearen aldeko apustu sendoa egin ohi dute, Abdullah Öcalanen

konfederalismo demokrati-koaren lerroetan. PKKren (Kurdistango Langileen Alderdia) sortzaileetako bat eta buruzagia dena 1999tik dago Turkiako espetxe batean.

Adobezko etxe batean, bi emakumek mahai baten ingu-

ruan esertzeko gonbita luzatu digute. Zilan Vejin dugu horietako bat, PJAKeko kopresidentea. Grabagailua martxan jarri eta premiazkoenaz galdetu diogu: Iran astintzen ari den protesta kateaz. Irango moralaren poliziak iragan irailean erail zuten Mahsa Amini, 22 urteko kurdu irandarra. Belo islamikoa modu desegokian eramatea izan zen bere delitua. Orduetik, milaka gizon eta emakumek kaleak hartu dituzte, «emakumeak, bizitza, askatasuna» oihukatuz. Vejinek gogora ekarri duenez, leloa bere mugimenduak sortu zuen, «lidergoaren 2013ko bilkura batean».

«Emakumearen askatasunaren arazoa duela 40 urte iden-

Estatu kurdu bat eratzea da PAK alderdiaren azken helburua.
PAK



«Emakumearen askatasunaren arazoa duela 40 urte identifikatu eta definitu zuen gure lidergoak. Egun, Irango herri guztiek pairatzen dute»

«Matxinada hau oso desberdina da aiatolek boterean eman dituzten 43 urteetan gertatu direnekin alderatuta: egun, Irango herri guztietako jendea biltzen du»

tifikatu eta definitu zuen gure lidergoak. Egun, Irango herri guztiek pairatzen dute», ziurtatu du Vejinek. Gehiago ere badago. «Monoteismoaren garapena sustatzea, herri bat, hizkuntza bat eta bandera bakar bat defendatzea arrazismo hutsa da. Herria deuseztatzea baino ez du helburu», gaineratu du gerlariak.

Amnesty International bezalako erakunde ugari salatzen dute kurdu, arabiar edo balutx gutxiengo etnikoek pairatzen duten diskriminazioa. Askotan, gaindiezinak dira hezkuntza, enplegua edo etxebizitza lortzeko dituzten zailtasunak haientzat. Egoera are larriagoa da emakumezkoen kasuan. Hauen artean, diskriminazioak ez du bereizten etnien artean. Ildo berean, herrialdeari buruzko azken txostenean, Human Rights Watch-ek salatzen du Irango biztanleriaren erdia baztertuta dagoela ezkontzan, dibortzioan, jaraunspenetan eta seme-alaben zaintzan. Etxeko indarkeria edo haurren ezkontza bezalako egoeretan emakumeen babesgabetasuna ere salatzen du GKEak.

Altxamendu zibil honek amaiera emango al lioke honi guztiari? PJAkeko kidea baikor dago.

«Matxinada hau oso desberdina da aiatolek boterean eman dituzten 43 urteetan

Mahsa Amini emakume kurdua erail eta bost egunera, Hadis Najafi izeneko azerbaijandar neska gazte bat hil zen Karaj hirian, Gobernuaren kontrako protestetan. Najafi Iranen bizi diren milioika azerbaijandarrentzat ikur bilakatu zen. Aldi berean, zera gogorarazi zion munduari: aiatolak boterean daudenetik inoizko protesta inklusiboena bada ere, herrialdean zehar bizi diren azerbaijandar, arabiar edo balutx herriek, besteak beste, aldarri propioak dituztela. Azerbaijandarrak Irango 88 milioiko populazioaren %20 dira, eta herrialdeko gutxiengo handiena osatzen dute. Xiitak izan arren, hezkuntzan azeri hizkuntzak pairatu duen debekuak bere pisua du egungo protestetan. Azeri hizkuntza, hain zuzen, eskoletan irakatsi zen «Azerbaijango Herri Gobernu» izeneko eskualde autonomo bat eratu



Nahid Bahmani, Irakeko Kurdistango Eskualde Autonomoan berriki egindako agerraldi batean. KOMALA

PROTESTA BAT, HAMAIKA ALDARRI

zenez, 1945 eta 1946 artean. Kurduak “Emakumea, bizitza eta askatasuna” leloa lau haizeetara zabaldu arren, «Askatasuna, justizia eta herri gobernu» ere entzun daiteke Tabriz, Urmia, Ardabil edo azerbaijandarrak nagusi diren mendebaldeko beste hainbat hiritan, eta protesta hasieratik. Herrialdeko kaxkai turkiarrek ere berea egin dute leloa.

Irango Gobernuak eta bere mendeko komunikabideek «separatista» edo «panturkiarra» adjektiboak erabili ohi dituzte azeri hizkuntzaren aldeko ekintzaileak izendatzeko. Hauexek dira, hain juxtu, egun azerbaijandar atxilotuei deitzeko formula ohikoena. Irango arabiarrek ere kaleak hartu dituzte. Bi milioi inguru direla kalkulatzen da, eta Persiar golkoaren ertzean bizi dira, Khuzestan eskualdean eta Irakeko mugan, hain zuzen ere. Gehiengo handi bat xiita

izan arren, errepresio handia pairatu ohi dute aiatolen eskuetan. Haien arabiar identitatea are estigma handiagoa bilakatu zen Iraken kontrako gerran (1980-1988). Teheranek Saddam Husseinekin kolaboratzea leporatu zien orduan, eta muturreko talde sunitekin kolaboratzea berriki. Herrialdeko hego-ekialdean, Irango eskualde azpigaratuena eta txiroena da balutxena. Ez da harrizkoa, beraz, herri hau ere kalera atera izana. Iranen 5-6 milioi direla kalkulatzen da. Azerbaijandarrek edo kurduak baino askoz kopuru txikiagoa osatu arren, azken hauekin batera hildako gehien jarri dituzte mahai gainean protesta piztu zenetik. Persiarra ez den identitateari atxiki ez ezik, balutxak suniak ere badira. Bi faktoreok izan ohi dira haien bazterketaren arrazoi nagusiak Iranen.



gertatu direnekin alderatuta: Kurdistanen hasi zen, emakumeek abiatuta, eta hortik herrialde osora zabaldu zen. Egun, Irango herri guztietako jendea biltzen du», dio gerrillariak. Azpimarratu duenez, belo islamikoa «askatasuna eta demokrazia eskatzen dituen matxinadaren aitzakia baino ez da». Vejinen aburuz, jendeak ez ditu erreformak bakarrik nahi. Nahitaez, egungo politikak, sistema eta administrazioa aldatu behar dira.

Borroka armatua hori lortzeko baliabideetako bat izan ote daitekeen galdetuta, Vejinek «bidezko defentsarako eskubidea» defendatzen du.

«Borroka armatua gure indarraren alde bat baino ez da. Ekintza zibil, sozial eta demokratikoei ere eusten diegu. Edonola, Estatuak sarraskiak egiten baditu, ez gara besoak gurutzatuta geratuko», berretsi du emakume kurduak.

IRANGO TAULA GAINEAN

PJAK alderdikoak ez dira, inondik ere, armak hartu dituzten emakume kurdu bakarrik. PDKI (Irango Kurdistango Alderdi Demokratikoa) barruan emakumeak daude gizonekin borrokan, eta PAK-en (Kurdistango Askatasunaren Alderdia), berriz, emakumeek soilik osatutako tropa badago.

Estatu kurdu independente bat sortzea da PAKen azken helburua, Turkia, Irak, Siria eta

«Iranek etengabe mehatxatzen gaitu. Protestak babestu eta herrialdetik ihes egiten dutenei babesa ematen jarraituz gero, berriz bonbardaketekin erasoko digutela diote»

«Sirian eta Turkian, kurdu gehienek ideologia aurrerakoi eta komunalista bat bultzatzen dute; Iranen eta Iraken, aldiz, aldagai nazionalista eta tradizionalista batekin topo egiten dugu»

PAKeko emakumeak Estatu Islamikoaren nahiz milizia xiiten kontra borrokatu dira. Eskuinean, PAKeko gerlariak, iragan irailean hildako armakide baten hiletan.

PAK

Iranek okupatutako kurduen lurraldeak hartuko dituen.

Emakume taldeko bozerra-maile Hana Hussein Yazdanpanarekin kontaktatu dugu telefonoz. Euren baseak haranean izan arren, mendiko babesgune batetik hitz egin du. Dioenez, irandar misilen erasoak errepikakorrik dira. Azken asteotako bortitzena irailearen 28an pairatu zuten: hamar hildako eta 21 zauritu izan ziren orduan. «Iranek etengabe mehatxatzen gaitu bonbardaketekin. Protestak babestu eta herrialdetik ihes egiten dutenei babesa ematen jarraituz gero, berriz erasoko digutela diote», ziurtatu digu Yazdanpanak.

Dioenez, PAKek 3.000 pexmerga («heriotza aurrez aurre duena», kurdueraz) borrokalaria ditu, emakumeek heren bat osatzen dutelarik. Besteak beste, Estatu Islamikoaren kontra borrokatu ziren eta, horretara-

ko, Nazioarteko Koalizioaren barruko AEBetako eta Alemaniako kontingenteen entrenamendua jaso zuten, besteak beste. Teheranen babesa duten Irakeko lurretan jarduten duten milizia xiitei ere aurre egin diete. Esperientzia hori aiatolen aurka borrokatzeko aprobetxatuko ote duten galdetuta, Yazdanpana argi eta garbi mintzo da.

«Borrokak baketsua izan behar du. Protestak arrakasta izango du mundu askeak jendeari laguntza ematen badio eta Errepublika Islamikoaren aurkako ekintzak hartzen badiu».

Kurdistango mendietan ez ezik, gerrilla sareetan ere borrokatzen da. Bere webgunean, Irango Kurdistango Alderdia-Komala «Iran federal aske eta demokratiko baten alde» borrokatzen da.

Baseak Irakeko Eskualde Autonomo Kurduaren hego-



PJAKeko kolider Zilan Vejin (ezk.) bere kideetako batekin, Kurdistango mendietako beren posizioetako batean.

Karlos ZURUTUZA



ekialdeko txokoan daude, Irango mugatik oso gertu. Komala izan zen, hain justu, emakume kurdu borrokalariren inoizko lehen batailoia eratu zuena, 1982an.

«Sozialismoarekin eta kurduen autodeterminazio eskubidearekin batera, genero berdintasuna izan zen gure fundazioaren oinarrietako bat, 1969an», diosku, telefonoz, Komalako batzorde zentraleko kide Zagros Khosravik. Mendietan ehunka bat borrokalari dituztela dio. «Ez dira asko, baina gure benetako indarra Iran barruan mobilizatu daitekeen jendeak ematen digu. Horietako asko erresistentzia zibileko taktiketan trebatuak izan dira», azpimarratu nahi du gerrillariak. Hori gutxi ez eta, PDKIrekin batera, alderdi politiko kurdu-irandarren arteko lankidetzat bat eratu da berriki. «Horren emaitza ikus dezakezu kurduen protestetan

izandako parte-hartze maila handian», dio Khosravik.

Kurdish Peace Institute erakundeko Kamal Chomani analistak «funtsezkotzat» jo du kurdu-irandar taldeen arteko koordinazioa. «Indarkeriaren mailak gobernuaren kontrako gerra ireki baterantz jotzen bada, ezinbestekoa izango da elkarlana erregimenari aurre egin ahal izateko», azaldu digu Irakeko kurdua den Kamal Chomanik. Bere ustez, irandar kurduen arteko desberdinta-

Komala: «Sozialismoarekin eta kurduen autodeterminazio eskubidearekin batera, genero berdintasuna izan zen gure fundazioaren oinarrietako bat, 1969an»

Kamal Chomani analistak «funtsezkotzat» jo du kurdu-irandar taldeen arteko koordinazioa, gerra ireki baterantz joz gero, erregimenari aurre egin ahal izateko

sunak «kurduen esparru politiko zabalaren ondorio hutsa» dira.

«Sirian eta Turkian, kurdu gehienek ideologia ezkertiar, aurrerakoi eta komunalista bat bultzatzen dute; Iranen eta Iraken, aldiz, aldagai nazionalista eta tradizionalista batekin topo egiten dugu. Bertan, pisu itzela du tribuen gakoak ere», dio adituak.

Aktoreok egungo Irango oholta ezegonkorrean joka dezaketen paperaz, Chomanik honako egoera aurreikusten du: «PKKrekin lotura dela-eta, PJAK da gerrilla-borrokan eskarmentu handiena duena. Aldi berean, antolatze gaitasun handia dute. Bestetik, PDKI eta Komala, oso errotuta daude Iranen, 70eko hamarkadatik oso aktiboak izan baitira, politikoki nahiz militariki. Herrialde barruan borrokalari ugari mobilizatzeko gai direlakoan nago».

Bien bitartean, irandarrek kalera ateratzen jarraitzen dute. HRANA albiste agentziak emandako datuen arabera (giza eskubideen aldeko ekintzaileek kudeatzen dute), 400 lagun baino gehiago erail dituzte protestak duela hiru hilabete piztu zirenetik, eta atxilotuen kopurua 17.000tik gorakoa izan liteke. Dagoeneko hamaika presok jaso dute heriotza zigorra, eta haietatik bi exekutatu egin dituzte dagoeneko.

«Momentuz erregimenak ez du pausorik eman bakea lortze aldera, eta baliteke epe laburrean aldaketarik ez egotea», ohartarazi du, Kurdistango mendietatik, PJAKeko kolider Zilan Vejin. Gerlariak, alabaina, ez du amore ematen.

«Gauza bat argi dago: erregimena behin-behinekoa da; betiko botereak, herriarenak, alabaina, hor dirau».

HISTORIA LURPEAN

Gorpuak, tenpluak eta perretxikoak Erromako lur azpiko labirintoan

Erromako kaleen azpian, 15 metroko sakonean, esklaboek zulatutako labirinto ilun bat dago. Bi mila urtez betiereko hiriarentzat baliagarri izan da harrobi, hilerri, tenplu edo perretxiko haztegi gisa, eta orain jakin-mina duen orok oinez edo bizikletan bisitatu dezake.

Hainbat hamarkadatan abandonatuta eta hondatuta egon ondoren, Erromako Lurpeko Bideen Elkartek berreskuratu eta birgaitu egin ditu Appia Anticako harrobian lurperatuta zeuden 35 kilometroko galeriak.

Harrobi zaharrean era guztietako jarduerak gauzatu izan ziren, 1985ean itxi zen arte. Milaka urteko bizitza, gaur egun, hedapen historikorako berreskuratutako hainbat gunetan gogoratzen da, eta mota guztietako jendearentzat bisita gidatuak antolatzen dira.

«Labirintoa» historia handiko lekua da, misteriotsua, iluna eta galeriaz betea. Guk beti izan dugu argi espazio honen potentziala», zehaztu zuen Alfonso Diaz elkarteko presidenteordeak.

Appia Anticako harrobian bisitariak iraganera bidaiarazten dituzten espazioak daude, hala nola mitraismoaren tenplu berregin bat –Inperioaren garaian Erromara iritsi zen erlijio bat da–, edo Bigarren Mundu Gerran erabilitako aireko babesleku bat.

Dibulgazioaren alderdiaz harago, jarduera ludikoak ere garatzen dira, hala nola linternen argipean bizikletaz egindako txangoak, antzezlanak, kontzertuak edo Antzina-ko Erromaren historian oinarritutako «escape room» bat, guztiak ere harrobiko pasabi-

📁 **ITALIA** / Raul Martinez Mendo (Efe)

Erromako Appia Anticako harrobiko 35 kilometroko lurpeko galeriak birgaitu egin dituzte eta bisiten bidez ezagutu daiteke haren historia luzea. Tenpluak, hilobiak edo perretxiko haztegi kokatu izan dira bertan.

deen iluntasun misteriotsuak babestuak.

Hain zuzen ere, askok «Labirintoko» iluntasunean betiko atsedean hartzeko leku bat aurkitu zuten. Izan ere, heriotza ere pasabide horien nortasunaren parte da. Zuzenean lotuta daude Pretextatoko katakonbekin, non milaka pertsona lurperatuta dauden.

Hain zuzen ere, 750.000 hilobi baino gehiago pilatzen dira Erromako katakonbetako 170 kilometro tuneletan zehar, lur azpiko hilerri handi batzuetan. Han lurperatzen zituzten lehen kristauak beren hildakoak, erlijio hau jazarria zegoen garaian.

Baina ez dira soilik kristauen aztarnak aurkitu galerietako hormen artean lurpe-

Via Appia Antica antzinako Erromako galtzada garrantzitsuenetariko bat. 3.500 hektareako parkeko ibilbidean mausoleoak, katakonbak, hilobi-monumentuak edo villen hondarrak ikus daitezke oraindik. e55evu | GETTY IMAGES

ratuta. «Labirintoko» pasabi-deak induskatu zituzten esklabo askoren bizitzak ere bertan amaitu ziren, baita erabateko iluntasunean noraezean ibili ziren eta inoiz irtenbiderik aurkitu ez zuten pertsonen bizitzak ere.

Halere, bizitzaren loraldia ere bultzatu zuten hango hezetasun eta tenperatura baldintza egonkorrek: XX. mendean txanpiñoi haztegi bat kokatu zuten bertan. Horixe izan zen harrobiak izan zuen azken erabilera handia, hiru hamarkada inguruko ahanzturan erori aurretik.

«Harrobiaren sarrera sasiz beteta eta landarediaren artean ezkutatuta zegoen, eta barrura iristeko, Indiana Jonesen film batean bezala,



matxetekadaz egin behar izan genuen bidea», azaldu zuen Diazek.

«Labirintoa» hiriko birika berdeetako bat den Caffarella parke erromatarraren erdian kokatzea lagungarria izan da antzinako tunelak gaur egunera arte mantentzeko, baina milaka urtetako horma horiek jasan duten utzikeriak eragin nabarmena izan du.

Erromako Lurpeko Bideen Elkartekoak arduratu dira egitura indartzeaz, luiziak saihesteko. Izan ere, ohikoak dira eremu horretako jardue- ra sismikoarengatik eta Caffarella parkearen gainazala zeharkatzen duten erreka- toetatik iragazten den uraren eraginagatik.

Hori dela-eta, bisitariak ezin dute tunel batzuetan sartu, azken hamarkadetan eraitsi egin baitira eta honez- kero ez baitira seguruak pu- blikoarentzat.

Galeria sare luzea mantene- tzeaz Erromako elkartea osa- tzen duten boluntarioak ar- duratzen dira. Publiko orokorrari 15 euroren truke eskainitako bisita gidatuei esker sostengatzen da.

«Bisitei esker, espeleologia- ri buruzko gure ikerketekin jarrai dezakegu, eta, etorkizu- nerako, lurpeko bideen mu- seoa sortzea da gure asmoa», azaldu du lehendakarior- deak.

Appia Anticako harrobian bisitariak iraganera bidaiarazten dituzten espazioak daude, hala nola mitraismoaren tenplu berregin bat edo II. Mundu Gerran erabilitako babesleku bat

Pasabide horiek induskatu zituzten esklabo askoren bizitzak bertan amaitu ziren, baita erabateko iluntasunean inoiz irtenbiderik aurkitu ez zuten askoren bizitzak ere



750.000 hilobi baino gehiago pilatzen dira Erromako katakonbetan, 170 kilometroko hedapena duten lurpeko tuneletan zehar. Frank BACH | GETTY

ERROMAKO HISTORIAREN ARDATZA, UNESCOREN ZERRENDARAKO HAUTAGAI

«Labirintoa» izena hartu duen harrobiaren gainetik Via Appia Antica igarotzen da, antzinako Erromako galtzada garrantzitsuenetariko bat, dudarik gabe zaharrena eta ospetsuena. Via Appia Antica parkeak 3.500 hektarea ditu.

Duela 2.300 urte eraiki zuten erromatarrek Inperioaren erdigunea Ekialdeko atearekin lotzeko, Brindisiko portuan, Inperioa hedatzeko bidean. Orain Italiak haren ospea berreskuratu nahi du, Unescoren ondarearen zerrendan sartzeko.

«Ez zen bakarrik konkista bidea izan, menderatutako herrietan bizimodu eta kultura erromatarra zabaltzeko bidea ere izan zen», azaltzen dute agintariak.

Bere ibilbidean mausoleoak, katakonbak, hilobi-monumentuak edo villen hondarrak ikus daitezke oraindik. K.a. IV. mendean eraiki zuten, Errepublikaren garaian, Apio Klaudio Zentsorearen aginduz; hortik izena. Hiriko lehenengo akueduktua eraikitzea ere berak agindu zuen.

Hasiera batean Capuaraino iristen zen bidea baino ez zen, Italia barruan lehenengo konkistak sustatzeko. Erromak bere boterea zabaldu ahala Via Appia ere luzatzen hasi zen, K.a. 191n Brindisira iritsi arte.

Bide estrategikoa eta Inperioaren ardatza bihurtu zen eta haren inguruan villak, hilobiak eta mota guztietako monumentuak eraiki zituzten. Inperioa erori zenean denbora luzez erabili gabe geratu zen eta Erdi Aroan peleginaje bide izan zen. Brindisi berriro ate bihurtu zen, baina oraingoan kristauen Lur Santurako.

Errenazimentuan, mundu klasikoa berpiztu nahian berreskuratzeko lanak hasi ziren. Gerora, beste gertaera batzuen lekuko izan zen. Fosse Ardeatine mausoleoan, 1944an gertatu zen sarraskian hildakoak omentzen dira. Alemaniako okupazio tropek bertan exekutatu zituzten 335 zibil, judu eta preso politiko, ausaz aukeratuak, partianoek eraso batean hil zituzten 33 soldadu alemaniarrek mendekatzeko.



Saioa Aginako Lamarain
Psikoterapeuta

Kosta ahala kosta

A benduko egunak hurbildu ahala, kaleak nola apaintzen diren eta bertan jai giroa nola hasten den ikus dezakegu. Erakusleioek zuhaitzak, oihalak eta argiak dituzte, egutegiak markatzen dituen datak gogorarazten dizkigutenak. Gabon kantek erosketen konpasa markatzen dute eta poltsak kaleetan zehar paseatzen hasten dira eramaten dituztenekin zerikusirik ez duten edukiekin. Gabonek, zoriontsuak edo zorigaiztokoak, beste edozein urtarotan errepikaezina den giroa sortzen dute.

Haurtzaroan, gabonak oporraldiarekin, opariekin eta horien zatirik magikoenarekin lotzen dira. Jolas jarduerekin eta familia bilerekin ere bai. Horrela, haurra zarenearan errazagoa da gabonetan emozio atseginak nagusitzea. Hala ere, egia da hori guztia haurrarendik hurbilen dauden helduek urteko sasoi hori hautemateko eta hari aurre egiteko moduaren arabera izango dela. Aldiz, duela gutxi norbait galdu badugu edo haustura bat bizi izan badugu, ez zaigu erraza izango gugandik espero den gogo aldartea adieraztea. Gabonak joan diren pertsona horien falta gehien sumatzen den garaia ere bada eta zaila izaten da sentimendu horiekin batera ospakizunetan parte hartzea; izan ere, inguruan den giroak alai eta zoriontsu egotea eskatzen ez digunean, lasaiago sentitu gaitezke.

Hortaz, batzuek garai hau giro zoriontsu, familiar eta dibertigarrian bizi duten bitartean, beste batzuek modu desberdinean bizi dute, nostalgiarekin, tristurarekin, frustrazioarekin, estresarekin eta baita minarekin ere. Bizi eta hautematen ditugun moduetatik haratago, baliteke data horiek izatea emozio bizienak eta

kontraesankorrenak izaten ditugun urteko unea, eta emozio horiek zuzenean bizi izan ditugun esperientziekin lotuta daude.

Aipatu bezala, gabonak ez dira mundu guztiarentzat zoriontasun garaia izan behar. Bakoitzak emozio eta sentsazio desberdinak izango ditu, gure bizitzan izan diren gertaera berrien arabera eta haurtzaroko esperientzia nolakoa izan zen kontuan hartuta.

On egingo digu gure burua entzutea, festak nola ospatu nahi ditugun gure buruari galdetzea. Disonantzia kognitiboa esaten zaio gure sinesmen edo balioen kontrako gauzak egiteagatik sortzen den ondoez sentimenduari. Horrela, zuhaitzik nahi ez baduzu, ez jarri. Ez zaitez izan ez zaren norbait; normalean atsegina bazara, izan zaitez atsegina; serioa bazara, serioa zara,

eta maite zaituenak horrela egin behar du, gabonetan edo udaberrian. Saiatu bizi dituzun gabonez gozatzeko, familia bakar bat ere ez da perfektua.

Ez xahutu ez duzun dirua, oparitu zure denbora. Askotan ahazten bazaigu ere, pertsona bati egin diezaiokezun oparirik balioetsuena da. Faltza direnei buruzko pasadizoak elkarrekin gogoratzea pertsona horrek hor egoten jarrai dezan eta nolabait gurekin egon dadin modua izan daiteke eta gau-jai batez, partekatuz, gure malenkonia arindu. Ez jarri helburu irrealik prest sentitzen ez bazara.

Gabonak ez dira kosta ahala kosta zoriontsu izatera behartzeko garaia. Elkar ulertzeko, zaintzeko eta ahalik eta ondoen egokitze modua bilatzeko garaia da. •



Saiatu bizi dituzun gabonez gozatzeko. Juan Carlos RUIZ | FOKU

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

Estatua demokratizatzeke ezintasuna egiaztatuz

Analisetan arrazoia izatea ez da baitezpada albiste ona. Izan ere, urte amaiera iritsi delarik, balantzea egiteko eta, aldi berean, hurrengoari begiratzeko ordua den honetan, hainbestek joera autoritarioak eta antidemokratikoak salatuz azken urteetan plazaratutako iritziak berretsi baino ez dira egiten ari. Espainiako Konstituzio Auzitegian gertatu dena dugu, urrutira gabe, azterketa horiek egiaztatzen duten azken berria.

Estatu espainolak bere burua demokratizatzeke berezko duen ezintasuna azaldu zaigu berriro ere begien bistan, klarki. Horixe izan da azken hamarkadako gakoak, ezker abertzaleak estrategia aldatu eta ETAk borroka armatua utzi zuenetik, alde batetik; M-15 mugimenduak Estatu mailako aldaketarako joera bat irudikatu zuenetik, beste alde batetik, eta Katalunian aldebakarreko autodeterminazio prozesu bat oso urrun eramán zutenetik, azkenik. Horietan denetan, azkenean, Estatuak bere izaera azalarazi du eta agerian utzi du ez dagoela eraldaketa demokratiko bat azken bururaino eramateko prest. Aitzitik, bere nortasun atzerakoari zein funts gotortuari eusten die.

Francoren heriotzaren ostetik diktaduraren erreformaren bidez sortutako erregimen zaharberriak homologazio demokratikoa bilatu zuen, baina betiere muga mugiezinen barruan. Haustura demokratikoari uko egin zitzaion bezala, erabateko demokratizaziorako bideak itxi egin ohi dituzte.

Horretarako, sakoneko eta arnasa luzeko egituretan jokabide hertsienak elikatu dituzte, azken boladan botere judizialean ikusi dugunez. Botere ekonomiko eta mediatikoak lagun, “sakoneko Estatuan” kokatzen dira oro har epaileak, beste estatu egitura batzuekin batera. Koroa eta indar armatuak ere hortxe ditugu; gaur egungo testuinguruan, bereziki informazio zerbitzuak eta Guardia Zibila. Horiek denek protagonismo berezia

izan dute azken hamarkadetako gertakari politiko nagusi guztietan.

Orain asaldatuta agertu den hainbat ordezkari politikok ontzat eman zuten Euskal Herriko eta Katalunian auziei egitura errepresiboetatik erantzun izana, estatu arrazoiaren izenean. Horietako askok ez ikusiarena egiten segituko duten arren, bi nazio horien kontrako neurriak ez dira salbuespena, ez dira ezohiko, Estatuaren oinarria baizik.

Testuinguru orokor honetan, Espainiako Kongresuan azken urteotan sortutako egoerak bazterrak ederki aztoratu ditu, batez ere aipatutako eremu atzerakoietan. Paradoxikoki, horrek aukerak ere sortu ditu gehiengo berrien bidez zenbait gairi, zailtasunak zailtasun, beste modu batez erantzun ahal izateko, euskal presoen auzian ikusi ahal izan dugunez.

Hauteskunde zikloak berebiziko garrantzia izango du, edo erreakzioa gailendu daitezkeelako edo aukera berriak sor daitezkeelako aldaketa batzuk bideratzeko

Horregatik, hurrengo hauteskunde zikloak berebiziko garrantzia izango du, edo erreakzioa gailendu daitezkeelako –eta horrek atzerapauso handiak ekar ditzake– edo aukera berriak sor daitezkeelako gutxieneko aldaketa politiko batzuk bideratzeko. “Aukera-leiho” deitu izan zaio horri.

Jokalekua mugatua izango da edozein kasutan; aipatu moduan, Estatuaren berezko izaerak hala zedarritzen duelako, baina bai indar erreakzionarioak geldiarazteko bai aurrerapausoak eta hobekuntzak lortzeko ahalegina egin behar da edonola ere, inoiz ahaztu gabe arazoa egiturazkoa dela. Horregatik, jokaleku osoa aldatzeko helburuarekin, garrantzitsua da aldi berean norabide estrategikoa edukitzea, eta horren inguruan indarrak metatzea tai gabe. •

ANDEREÑOEN ITURBURU

Elbira Zipitriak andereño ugari formatu zituen frankismoan, ezkutuan

HEZKUNTZA / Oihane Larretxea de la Granja

Arrisku guztien gainetik bere etxean hurrei euskaraz eskolak ezkutuan emateaz gain, Elbira Zipitriak andereño gazteak formatu zituen Donostian nork bere etxetik ikastola klandestinoen sarea handitu zezan. 40 urte beteko dira hil zenetik eta 80 lehen ikastola hura martxan jarri zuenetik. Bere figurari hurbilketa da honakoa.

Itzalean lan egin zuen, eta iluntasunean argia piztu zuen. Esnatu zituen hauren adimenak eta elikatu zituen haien jakin-minak. Bidelagun izatera deitu zituen frankismoaren lehen urrats haietan Donostiako Irakasle Eskolatik, titulua jaso berritan, atera ziren zenbait emakume. Haiek ere ausartak, adoretsuak. Eta beren ogibideari emanak. Aberriari ere bai, Euskal Herriari; eta gure hizkuntzari, euskarari. Zigor eta debekuen gainetik.

Urte askoren ondoren ailegatzten ari zaio aitormen publikoa Elbira Zipitria (Zumaia, 1906-Donostia, 1982) andereñoari, hala uste dute bere albokoak izan ziren irakasle eta ikasle askok. «Andereñoen andereño» izan zela diote ezagutu zutenek, bere metodologia aurreratzailerak zelako, apurtzailerak, ezberdina. «Inoiz lehenago inon ez ikusia» irakatsi zuen emakume adoretso honek diktadurak muineraino hartua zuen hezkuntza sistema baten baitan.

Ikastola klandestinoa ireki zuen Donostiako Alde Zaharrean, ia betidanik Fermin Calbeton kalean bizileku izan zuen etxebizitzan. Hor sustraitu aurretik, ordea, ibilia zen hiriburuko beste etxe batzuetan eskolak ematen. Noski, euskaraz. Noski, ezkutuan, begirada susmagarrietan susmorik ez pizteko.

Zumaian sortua, ahizpa bat zuen, Maria; eta anaia bat, Jorge. Lehenengoa moja zen, eta Marseillan bizi zen. Bigarrena artista, margolaria, tunante bizimodua zuen eta han-hemen ibiltzen zen, antza, Elbiraren disgusturako. Aita hargina zuen eta haren lan arrazoiak tarteko jaioterria utzi eta Lazkaon denboralditxo bat egin ondoren gurasoekin eta anai-arrebeekin Donostiara lekualdatu zen, 26. atarira. Bigarren solairuko A atean instalatu ziren, eta han

Elbira Zipitria bere ikasleekin, argazki ezagunenetakoa den irudian. Gaztelurako bidean doa haurrekin, 1954ko uztailaren 15ean. Argazki originala da esku artean duguna. Andoni ZINKUNEGI



bertan hil zen 76 urterekin Gabonen biharamunean, abenduaren 26an, 1982. urtea zen.

Bi egunen buruan 40 urte beteko dira zendu zenetik, eta 80 lehenengo ikastola klandestinoa martxan jarri zuenetik. Bere izena du EHU/UPVko eraikin batek Donostian, eta Santa Maria parrokiaren alde batetik igarotzen den pasabide batek, gaztelurako bidean, bere izena du. Quebecen katedra batek Elbira Zipitria du izena eta berriki, Gipuzkoako Aldundiak bere patio nagusiaren erdi-erdian jarri du Lurdes Umerez egilearen eskultura ederra. Eta bitxia da, baina hain justu Gipuzkoako Aldundiaren beka bati esker egin ahal izan zituen maistra izateko ikasketak Zipitriak.

Emakume aitzindaria izan zen, gai izan zelako garaiari aurrea hartzeko hezkuntza berri-zailea praktikatu. Oso abertzalea zen, sutsua, eta EAJren Emakume Abertzaleen Batzako

militante aktiboa izan zen. Baita ere kristau fededun zorrotza. Erlijioa eta politika iparrorratz, bi zituen kezka nagusiak: aberria eta euskara. Horiek bai kendu zioten loa sarri.

Andereño batzuei formakuntza eman zien berekin praktikak eginez, bere etxean. Batez beste urtebeteko epean transmititzen zien metodologia bat eta besteek detaile bakoitza xurgatzen zuten, dena koadernoetan jasoaz. Helburua, haiek ondoren beste auzo eta herrietan, nork bere etxean, beste hainbeste egitea zen, ikastolen sarea handitu eta indartzeko. Zentsurak zentsura.

Klandestinitatetik publikotasunera jauzia eman eta ikastolen sorreran lehen ilaran parte hartu zuen Elbira Zipitriak, eta paradoxikoki hura izan zen bere gainbehera. Donostiako Alde Zaharrean Orixe ikastola sortu zuen, eta hantxe hartu zuen erretiroa urte batzuk geroxeago, 1971n.

ANDEREÑOEN ANDEREÑO

Mari Karmen Mitxelena (Usurbil, 1938) andereñoak bere alboan eman zituen hamalau urte. Urteak joan, urteak etorri, garbitasun harrigarriaz oroitzen ditu detaileak, keinuak eta anekdotak. Besteen ahotsen bidez hurbilduko gara Elbirarengana, haren figura itzaletik argitara eramateko asmoz.

Donostiako Ategorrietan irakasle ikasketak egiten ari zela aldatu zen Mitxelenaren patua. Oroitzen duenez, egun batean Jone Forcada izeneko emakume bat bertaratu zen, eta han euskaldunik ba ote zegoen galdetu zuen. «Eta ni neu suertatu nintzen», oroitzen du. «Donostiako kaian ikastola bat zuen Jonek, baina ezkondu egin zen eta utzi egin behar zuela esan zidan. Ondorengo bat behar zuen ilu-

nabarretan eskola frantsesera joaten ziren haur batzuk euskarekin trebatzeko. Lau ume ziren, oso ondo gogoratzen ditut. Bi anaia eta bi anai-arreba ziren. Eta horrela hasi nintzen, 1956an, Jonek alokatuta zuen lokal hartan».

Jonek Mari Karmen Elbirarengana eraman zuen ondoren. «Izugarrizko poza hartu zuen, Magisteritza egiten zebilen jendea behar zuelako, irakasle beharra zegoen. Beti jartzen zuen baldintza bat: titulazioa. 'Tituluak ez du asko ematen, baina beharrezkoa da', esan ohi zuen». Urtebetez bere alboan praktikak eskaini zizkion, eta gogoaz bazuen ekiteko, baina gurasoek zer esango ote zuten beldur zen. Azkenean konbentzitu zituen, eta ikasketak amaitu bezain pronto hasi zen. «Nik ideiarik ere ez nuen ikastola klandestinoak zeudenik ere! Ezta nire gurasoek ere, jakina. Gu Usurbilekoak ginen, eta eskolak erdaraz jasotzen bagenituen ere, andereñoa abertzalea zen, eta euskara kalean ez genuen debekatuta. Hori izan zen ezberdintasuna herri txikien eta hiriarren artean».

«Oso emakume azkarra eta bizkorra zen, beti zebilen ikasten», gogoratzen du. Gerra garaian ihes egin zuen Sarara, eta 1936 eta 1942 urte artean labaiendarren etxean babestu zen. Itzuli zenean jarri zuen martxan lehen ikastola, baina erbestean egon zen aldian ez zion ikasteari utzi. «Pedagogia aurrerakoienetatik edan zuen, beti zegoen ikasteko prest, belarriak zorrotz. Montessori, Piaget, Freinet, Decroly... horiek metodologiak ziren, eta horregatik esaten zuen berak ez zuela ezer asmatu, ekarri eta egokitu egin zituela gurera, eta euskaratu gure nortasuna eman. Elbirak esan ohi zuen hori zela bere

Pedagogia aurrerakoienetatik edan zuen, beti ikasteko prest zegoen. Montessori, Decroly, Piaget... gurera egokitu egin zituen, horregatik esaten zuen berak ez zuela ezer asmatu

meritua, ez ezer asmatzea», ekarri du gogora.

Mitxelenak hamalau urte partekatu zituen Elbiraren ondoan. Urtebeteko praktikak amaituta, gero berak beste hainbeste egin zuen beste etxe batzuetan, hazia zabalduz. Bazuen metodologia eta ezagutza. Hegan egiteko prest zegoen. Bidean gurutzatu zen orduan Kontxita Beitia (Pasai Antxo, 1940).

Donostiako Zurriola ikastolako sortzaileari tankerako zer-bait gertatu zitzaion. Diktadurak ezarrita zuen jazarpena zela medio, jaiotzaz zuen euskara galdu zuen pasaitarrak, baina Elbirarentzat hura ez zen salbaezina. Urtasun abizena zuen gizon batek bere aitari eskaini zion alabak «ikastola batean» praktikak egiteko aukera. «Baina nola ikastola? Nola da posible hori? Eta non dago?», galde-tu omen zion aitak gizon hari.

«Guk uste genuen Urtasun hau ez zela abertzalea, baina inprudentzia puntu batekin gure aitari egin zion eskaintza horri esker jakin genuen bera, gu bezala, euskalduna zela. Antza, 5 urteko alaba eramaten zuen egunero 'ikastola batera'. Bai, Elbiraren ikastolaz ari zen», oroitzen du Beitia. «Urtasunek esan zidan Elbirak erakutsiko zidala euskaraz, berreskuratuko nuela, izan ere, bera ostegunero joaten zela gau eskolara. Nire aitak ezagutzen zuen Elbira, mitinlari izugarria zelako. Hala, bideragarria eta fidagarria iruditu zitzaion emakume hura, eta aitaren oniritziarekin joan nintzen amak eta anaiak lagunduta Elbira ezagutzera».



Mari Karmen Mitxelenena andereñoa, bere etxean. Jon URBE | FOKU

Ikusi zuen lehen aldiaz ere primeran gogoratzen da Beitia. «Oso emakume txikia zen, eta ile zuria moño batean jaso zuen. Oso txukun jantzita zegoen. Bere etxera igo ginen, eta galdeketa bat egin zidan.

—Nola duzu izena?

—Kontxita.

—Eta zenbat urte dituzu?

Ez nekien ezer gehiago erantzuten, ezer ez. Ulertzen nion pixka bat baina... «euskeraz ikasi nahi det, baina dena ahaztu det», esan nion.

—Zenbat denbora ahaztu duzula?

—Erabat-erabat ia bi urte bai.

—A! Ez da ezer! Bi urte ditugu berreskuratzeke.

AMAMA ESKOLASTIKAREN ALBOAN LURPERATU ZUTEN, BERAK ESKATU BEZALA

Elbira Zipitriak, Zumaian jaio arren, bizitza osoa Donostian eman zuen. Halere, ez zen euskararen hirian lurperatua izan. Istorio polita dago zergatiaren atzean: «Elbiraren etxetik jende asko pasatzen zen solastatzera, berrikeretara, debatzera. Politikaz, erlijioaz, hizkuntzaz, aberriaz... garai zailak ziren, eta Elbirak ez zuen gaurkotasunaren haria galtzen», oroitzen du Mari Karmen Mitxelenak. Josu Arenaza sendagilea zen, eta tarteka egiten zion bisita Fermin Calbetoneko etxebizitzara. Harekin batera joaten omen zen Gotzon Garitaonandia, Mañuko abade gaztea, eta lagunak egin ziren. «Horregatik, Elbira asko joaten zen Mañura eta bisita bakoitzean

familia baten baserrian egiten zuen egonaldia. Halaxe ezagutu zuen amama Eskolastika», oroitzen du.

Emakume honek asko omen zekien Euskal Herriaz eta kondairez, eta Zipitriak adi-adi entzuten zituen bere istorioak. «Orduak eta orduak ematen zituzten hizketan mitologiak, kondairez, bitxikeriez. Oso emakume jakintsua zen, 'Bizkaiko amama' deitzen zioten, eta 106 urterekin hil zen». Izugarri maite zuten elkar eta, hil aurretik, lagun minei argi utzi zigun bere borondatea: Mañun izan nahi zuela hilobiratua, amama Eskolastikaren ondoan. Eta halaxe egin genuen», gogoratzen du Mitxelenak.

«Halaxe izan zen nire lehen hartu-emana Elbirarekin. Bartzuek diote ez bazinen euskalduna ez zintuela hartzen, baina berak nahi zuena zen magisteritza titulua izatea, gero 'konponketak' egingo zituela esaten zuen. Abertzaletasuna ere itzalita nuela aitortu nion, eta hori ere atonduko genuela esan zidan», kontatu du.

Beitiaren iritziz, Elbirak berarengan «aukera erreal bat» ikusi zuen ikastola klandestinoen sarea zabaltzeko. Ordurako, Mitxelenak amaituak zituen praktikak, eta bere ikastola propioa sortua zuen. Pasaiaikoa izateak, gainera, herrietara hedatzeko aukera ematen zuen. «Utopia hutsa zen, baina asmo horrekin ekin nion, ardura eta konpromiso handiz».

Abertzale sentitzen ez zela aitortzean, lehen solasaldiaren ondoren, liburu bat eman zion. «'Irakurri eta gustuko bazaizu, segi; ez bazaizu gustatzen, utzi. Eta ondoren esadazu hasi nahi duzun nirekin edo ez'. Luis de Elizalde idatzitakoa zen, 'Lan-dibar' zuen izena. Gerra garaiko abertzale eta ez-abertzale baten arteko amodioa kontatzen zuen. Astebetean amaitu nuen, eta Elbirari baiezkota eman nion. Hitza eman eta hitza bete nuen. Euskarari trebatu nintzen eta berreskuratu nuen. Eta handik urte gutxi batzuetara nik nire ikastola jarri nuen martxan, nire herrian hasieran eta Donostian gero. Esan dezaket Elbira izan dela nire bizitzan mugarririk bat, ordura arte eta aurrerantzean bizi izan nuenaren artean», dio hunkituta Beitiak. Irribarre handi bat marraztu zaio ezpainenetan.

ARRAZOINAMENDUAREN BIDEZ

Biek ala biek bat egiten dute metodologia erabat aurrerakoiaz mintzatzen direnean. Ira-

kasle Eskolan ikasitakoak ez zuen «ezertarako» balio ez zuelako antziz Elbiraren moduekin. «Fakultatean egiten zena ehun urte atzera egiten zen gauza bera zen, eta Elbirak, ordea, bazuen bere bide propioa. Berea eskola bizia zen. Hauxe esaten zuen: haurrak hezi behar dira dakitenetik. Apur bat bada, apur horretatik, eta pixkanaka pittin bat gehiago eman, eta pittin bat gehiago... eraikitzen joan. Horri deitzen zaio irakas-kuntza eraikitzailea», dio Mitxelenak.

Txikitik handira egiten zuen, gainera, edozein zela materia. Gertukoa ulergarriagoa zelakoan, ezaguna delako. «Gurekin tematzen ziren munduko ibaiak, lakuak eta mendi tontorrrak irakasten, eta berak, ordea, irakasten zuen aurrena non zeuden Urumea, Oria, Bidasoa... eta non jaiotzen ziren. Urgull, Igeldo, Uli... ingurutik abiatzen zen beti, ikusten eta ezagutzen genuenetik», dio bestetik Beitiak.

Elbirarekin «dena» zen ezberdina, hala diote bi andereñoek. «Gauza guztiak arrazoinamenduaren bidez azaltzen zituen, eta ezer baino lehen zergatiak ematen zituen. Eta umeren batenek ulertzen ez bazuen, beti-beti bilatzen zituen bideak eta moduak ulertu zezan. Horretan oso tematua zen, eta denek ulertu arte horretan segitzen zuen».

Zorrotz gain umeekin oso goxoa ez zela dioten ahotsak badauden arren, umeek eta haien heziketak kezkatzen zuten, eta Elbira beti zegoen metodologia hobetzeko saiakerak egiten. «Oso dedikatua zegoen neska-mutikoei, dena ahalik eta hoberen ulertzeko ahalegintzen. Eta berak bere moduak erdietsi zituen. Adibidez, matematiketan taulak ez genituen

Kontxita Beitiak euskara erabat galdu zuen frankismoan eta Zipitriari esker berreskuratu zuen. Zurriola ikastolako sortzaileetako bat izan zen.
Jon URBE | FOKU



ohi bezala irakasten. Bi lauko eta lau biko gauza bera ez zirela ikusarazi nahi izaten zuen. Bi lauko dira lau eta lau; eta lau biko dira bi, eta bi, bi eta bi. Emaizta berdina izango dute, zortzi, baino ez zaizu berdin irudituko bi goxoki jasotzea edo lau, ez da hala?», azaldu du Mitxelenak.

«Eskola bizia» aipatu dute, eta akaso hori da Elbiraren metodoaren deskribapenik fidelena. Inguruaz baliatzen zen irakaste-

Zipitriarena 'eskola bizia' zen. Inguruaz baliatzen zen irakasteko, eta gero aplikatzen zituen matematiketan edo idazketetan. Kaira, gaztelura edo Bretxara egiten ziren irteerak

Haurrek edukiak ulertu arte ez zen errenditzen. Bakoitzak zekien apur horretatik abiatzen zen, beti arrazoinamenduan oinarrituz. «Eraikitzailea» zen baliatzen zuen metodoa

ko, sinistuta egunerokoan zue-dela egoera onenak matematikan edo idazketan aplikatzeko. «Santa Barbarara, Hernanira, joaten ginen baratzeak ikustera, eta baserritarrek erakusten zizkiguten lekak, babarrunak eta tomateak, edo Bretxara egiten genituen maiz bisitak, baserritarren postuetara. Kaira ere usu joaten ginen, izan ere, ikasle askoren aitak edo aitona arrantzaleak ziren eta aurretik bage-

nekien txalupak noiz ailegatu-ko ziren kargarekin. Eta bertatik bertara ikusten genituen bokartak, txipiroiak, antxoak, berdelak, sardinak... 'Galdetu aitari zenbat kilo berdel ekarri duten, eta zenbatean saldu duten kilo kofradian'. Eta datu horiekin egiten genituen gero ariketak eta idazlanak», oroitzen du.

Gaztelura ostegunero egiten zuten irteera, eguraldia alde bazez. Han, naturan, beti zegoen zer ikasi. Hosto bilketa egiten zen, politena bilatzeko, eta denek ezberdinak behar zuten izan. Edo gaztainak, hurrak, intxaurrak biltzen zituzten... Maldan gora, gaur egun bere izena duen pasabidean, Garizuma garaian otoitz egitera sartzen zituen umeak Santa Teresa, Ama Birjinari eskatzera. «Baina beti Euskal Herriaren alde eskatzen zuen. Ez zuen 'Aita gurea' esaten, baizik eta abesten



Berdintasunean sinisten zuen eta praktikatzen zuen; hala, neskak eta mutilak nahasten zituen bere eskoletan. Emakumearen defendatzailea ere bazen: «Ez zuen zapalkuntzarik onartzen»

Testuinguru politiko haren baitan, non hezkuntzan neskak eta mutilak banantzen ziren, Elbirak horri muzin egin eta ez zuen banaketarik aplikatzen, ikasleen adinekin egin ez zuen bezala. «Neskek eta mutilek espazio bera konpartitzen zuten, eta ez zuen inolako diferentziarik egiten, gauzak berdin-berdin agintzen zizkien, dena zen berdina denentzat», dio Mitxelenak. «Heziketa bertsua zuen denentzat, bera barne; hala, denak lurrean esertzen ziren. Inportantea ez zen gertutasuna bakarrik, baizik eta berdintasuna». Hori da gakoa. «Ikasturte hasieran haurrek jostailu bat eramane behar izaten zuten, eta han biltzen ziren panpinekin esaten zien mutilei: 'Hartu panpinak eta eman biberioa. Horrela ikasiko duzue aita onak izaten'. Pentsa, duela 75 urte baino gehiagoko kontuak dira...».

ALDAKETAREN ONDORIOAK

Azkenera arte iraun zuten klandestinitatean eskolak euskaraz ematen, eta polizia atzetik izatea gauza normala zen. Hori gertatzen zenean, umeak ezkutatatu egiten zituzten. Baina garai batetik aurrera, bi andereñoek gogoratzen dutenez, eskolatzeko kartillak eskatzen hasi ziren. Gobernadoreak atera zuen dekretu bidez neurria, eta legeztatzeke epe bat zabaldu zen. Bederatzi urterekin derrigorrezkoa zen ikastetxeetan matrikulatzea. Jakina, sistematik at egonda, zaila zuten kartilla horiek lortzea, eta beste zentroetan zituen kontaktu eta

harreman onei esker lortu zituen asko Mitxelenak, umeak hezkuntza sistema legeztatuz sar zitezten. «Trikimailuekin ibili ginen».

Hala, ikastola gehienak auzoetako parrokiei lotuak sortu ahal izan ziren, baina hor ere euskara debekatuta zegoen. Alde Zaharreko kasuan, Santa Mariari atxikita, gurasoek Asociación Recreativa Cultural Orixe sortu zuten, zeinaren zeregin nagusia ikastola bultzatzea zen.

Irekitzeko baimena eskatuta zegoen, baina baldintza minimo batzuk eskatu zitzaizkien, hala nola Santa Teresako bidexkan hartutako lokal «ilun, heze eta zikina» txukuntzea. Arratoiak ere ibiltzen ziren. 1968. urtean, gurasoek nork bere poltsikotik «diru pila bat» jarri zuten, eta gero abalak eskatu zituzten. «700.000 pezetako mailegua atera zuten. Orduan izugarria zen!». Dirua obrak egiteko erabili zuten, eta han atondu ziren «bost gela handi, ederrak». Hala ere, baimena oraindik ez zen ailegatu. «Han ere izan genituen ikuskariak. Formakuntza aldeetik oso ondo prestatuak zeudela jasotzen zuten txostenetan, 'Formación del Espíritu Nacional' delakoan izan ezik».

«Etorri zitzaigun behin Santa Teresako zuloetara ikuskaria, eta justu sartu zen aurreneko gelan, nire gelan –dio Mitxelenak–. Aztertu zituen haurrak, eta mila galdera egiten hasi zen. Matematika, geografia, hizkuntza... denetik! Eta halako batean hartu zuen mutiko bat, 8 bat urte zituena, eta esan zion:

—¿Cómo te llamas?

—Jon...

—¿Cómo te llamas?

—Jon...

—¿Cómo te llamas?!

—¡Juan!

Mutil koxkorra hirugarrenean jabetu zen zer esan nahiz gizon hark. Gizajoa!

—¿Cual es tu patria?

—Euskadi.

—¿Conoces alguna bandera?

—Sí.

—¿Cual?

—La ikurriña.

—¿Qué colores tiene?

—Blanco, rojo y verde.

—¿Quién es Franco?

—Un hombre.

—¿Conoces el escudo de España?

—No...

«Akabo gure ikastola eta akaboa euskara!» pentsatu nuen. Hurrengo egunean Elbiraren gelan sartu zen. Zenbat negar egin genuen arratsalde hartan... gure burua Martutenen ikusi genuen!».

ERRETIROA ETA HERIOTZA

Beitiak eta Mitxelenak uste dute hortxe hasi zela, pixkanaka, Elbiraren gainbehera. Ez zuen ondo asimilatu aldaketa, etxetik atera eta eraikin batean sartzea, hamarnako taldeak izate-tik, 30 ikasle izatera. Aldaketa oso handia izan zen. «Nik uste dut berak ez zuela hori amesten, eta beldurra zuela aldaketak egindako lan guztia baliogabetuko ote zuen. Beldurra ez zen metodoarekiko, hori transmititu zigulako eta guk aldi berean aplikatu eta egokitu genuelako nork berean, baizik euskararekiko», uste du Beitiak.

Hor kokatzen dituzte euskara batuaren sorrerak eman zizkion minak eta disgustuak, eta zeresanik ez "h"-aren aplika-

zioak. «Elbirak munduko hizkuntza asko aztertu zituen, eta esaten zuen beste guztietan gauzak errazten saiatzen ari ziren bitartean, hemen alderantziz ari ginela. 'Iparraldean bai, ahoskatzen dutelako, baina hemen ez!', aldarrikatzen zuen. Ene! zenbat buelta eman zizkion horri!», kontatu du Mitxelenak.

Orixen hiru urte eginda, 1971. urtean hartu zuen erretiroa Zipitriak. Baina ez pentsiorik, ez bestelako diru sarrerarik ez zuen. «Klaseak ematen zitue-nean, 150 pezeta kobratzen zituen hilabetean familia bakoitzeko, euro bat baino gutxiago da hori. Xoxik ez zuen», dio Beitiak. Baina bazuen maite zuen jendea inguruan, lagunak, ikasle ohiak eta haien gurasoak. «Denon artean zaindu genuen». Mari Karmen Mitxelena honetaz arreta handia ematen dio oraindik gaur egun, nola besteei emana zen erabat, eta ahaztu zuen bere burua. «Hain zen azkarra eta berezia, kozinatzeke kontuei-eta ez zien inongo inportantziarik ematen. Zenbat aldiz ez ote zen kafesne bat hartu eta ohera joango! Nik uste dut bere osasuna ahultzen joan zela».

Heriotzaren egunetik 40 urte igaro dira eta urteurrenak ufada berri bat ekarri dio Elbira Zipitriaren bizitzari eta pentsamoldeari. Bidegilea izan zen emakume hari orain ari zaizkio heldzen aitormenak eta erreko-nozimenduak, bereziki estamentu publikoetatik. «Ez zen omenaldi zalea, berak jakingo balu zertan ari garen! Baina ondo ari gara, dagokion lekua ematen. Batzuei kosta zaie, eta isilune bat egon da, luzea; ordea, behar da jakin eta behar da esan ikastolak emakumeok sortu eta atera genituela aurrera», aldarrikatu du Mitxelenak.

zuen: 'Mikel, Mikel, Mikel gurea, zaindu, zaindu Euskal Herria...».

«Oso-oso emakume fededuna zen, erlijioak presentzia handia zuen, erabatekoa. Zuzena zen, baina aldi berean moder- noa zen. Ez nuke esango tradizio- nalista zenik. Aberria eta erlijioa ziren bere bi zutabeak, baina kristautasuna ez zen espainiarra. Bere lagunak ziren Orixe, Barandiaran...». Mitxelenak zein Beitiak ez dute aipatu gabe utzi nahi Zipitriaren feminismoa, eta emakumeari ematen zion lekua eta zilegitasuna. Bere lekua emateko borrokatzen zen. «Oso feminista zen. 'Feminista' hitzak orduan oso konnotazio txarrak zituen eta ez genion hala esaten, baina ba- genekien hala zela», dio Beitiak. Familia defendatzen zuen, eta bereziki ama. «Ez zuen zapal- kuntzarik onartzen».

MERTXE UZIN ETA MIKEL MENDIZABAL

ANDEREÑO ZIPITRIAREN IKASLEAK 50EKO HAMARKADAN

«Gure lehenengo hizkuntza alfabetatua izan zen euskara, eta horrek guztiarekin hautsi zuen»

Elbira Justa Zipitriak 1922an hasi zituen irakasle izateko ikasketak, eta bere lehen ikastola errepublika garaian sortu bazuen ere, antza denez Donostiako Alde Zaharreko Ikatz kalean, gerrak dena eten zuen eta hanka egin zuen Sara-ra. Bueltan, 1942an, jarri zuen martxan gerora hain ezaguna egin den ikastola klandestino, bere bizitokian. Hogei urte baino gehiago ibili zen Fermin Calberton kalean.

Urrats horren aurretik, ordea, bera joaten zen besteen etxeetara. Erdialdeko Prim kalean hasi zen, arriolarren etxean. Bertakoa zen Patxi semea, eta harekin batera joaten zen Xabier Garaialde mutikoa. Haiek izan ziren bere aurreneko bi ikasleak. Ahoz ahaz zabaltzen joan eta etxe hartara Elbirarekin egoteko eskabideak ailegatzen hasi ziren; han leku nahikorik ez zegoenez, Joxe Miguel Zumalabereren etxera joaten hasi zen, goenagatarren etxera alegia. Umeak gehitzen eta gehitzen joan ziren eta bi urteren buruan bere etxebizitza propioan ezarri zuen Zipitriak ikastola.

Handik pasatu ziren urte gutxiren aldearekin Mertxe Uzin (Donostia, 1947) eta Mikel Mendizabal Cristobal (Donostia, 1952). Biak Alde Zaharrean jaiotakoak, lau urte eman zituzten Elbirarekin. Aurretik, hala ere, beste andereño aitzindari batzuekin ibili ziren, Zipitriak bezala ezkutuan eta euskaraz irakatsi zutenekin. Uzin Itziar Arzelusekin egon zen. Haren ahizpa Amale Arzelus ere andereñoa zen eta San Jeronimo kalean aritu ziren bi ahizpak. Mendizabalek, aldiz, Faustina Carril izan zuen maistra, Gazteluperen gainean. «Eskolaurre moduko bat» izan zen etapa hura, eta ondo oroitzen dute. «Faustinarekin nenbilenean hiru urte nituen,



Andoni CANELLADA | FOKU

baina garden gogoratzen ditut guri mutiak kentzeko erabiltzen zuen Elefante papera, bai zakarra!». Zezen beltz batez ere oroitzen da. «Figuratxo bat zen, eta haren aurrean jarrita kantatzen genion: 'Zezen suzkoa, Donostiakua, izan zaitez zorionekua...'», dio.

Zipitriaren izaeraz galdetuta, zorrotasuna da azaleratzen den lehen ezauzgarria, eta buruan kankarrekoren bat edo beste ere ematen ei zuela aitortzen dute. Hala ere, irudimenerako zuen ahalmena ere aipatzen dute, gogortasun horren kontrapuntu bezala. «Elbira gai zen oso gutxirekin asko irakasteko. Medioak oso urriak ziren, liburu bakarra genuen, eta dena koadernoetan egiten genuen. Irudimena baliatuz, nola

irakatsi eta transmititzen zuen!», gorai patu du Mikelek. Oroitzen da nola ostegunero Gaztelura igo eta bueltarako bidia hartzen zutenean Apaizen Pasealekutik, kaira heltzen zirenean bere bi eskuekin argazki kamera bat irudikatatu eta argazkia egiten zien ikasleei, egunaren oroitzapen gisa. Eta denak gai ziren han argazki kamera bat ikusteko. «Hori ere bazen Elbira».


Etxean umeak kabitzeko altzariak eta aulkia bazterreran eramaten zituen, eta denak esertzen ziren borobilean, lurrean lan egiteko. Materiala oso sinplea zen. Idazten ikasteko txotxekin hasten ziren, eta letra larriz idazten zituzten zoruaren gainean lehen hitzak. Txotxak ematen zuen neurria. «Ama», «ai-

ta», «etxea»... Erdia gorri eta erdia urdin zen arkatza eta arkatz arruntak ere erabiltzen zituzten, eta grafia ondo lantzeko boligrafoaz idazten zuten txandaka aulkian eseriz, mahai gainean koadernoan idazteko. «Begira zer zuzen idazten genuen», dio Uzinek, garai hartako koadernoko idazketak erakusten dituela. Ondo gordeta dituzte, eta bai ariketek bai marrazkiek ondo eutsi diote denboraren joan-etorriari. «A zer oroitzapenak...», diote emozioz.

Ariketa eta idazketa batzuen gainean Elbiraren zuzenketak daude, letra handiz eta gorritz noski, ondo ikus zedin. «Ironia handia zuen, eta ez zen mozten gauzak pentsatzen zituen bezala esateko. Filtrorik ez zuen. Geografia lantzen ari ginen egun batean, bota genuen halako astakeria bat, eta halaxe esan zigun: 'Ikasle oso argiak ditugu, mundu berri bat asmatu dute'». Eztabaidarako tartea sustatzen zuela gogoratzen dute, nahiz irribarrez erantsi: «Beti berak irabazten zuen».

Umeengan ere «begirada kritikoa» elikatzeaz arduratzen zela aipatu du Mendizabalek. Beldur falta hura umeei transmititzen saiatzen zen. «Oso ausarta zen, eta ez zuen lotsarik inon ezer aipatzeko, ezta jendearen aurka agertzeko ere. Gu ere halakoak izatea nahi zuen, eta horretarako prestatzen gintuen», kontatu du Mendizabalek. Dantza egiteak lotsatzen bazuen norbait, besteen aurrean dantzan jartzen zuen, abesteak lotsatzen bazuen, abestera. «Ni oso lotsatia nintzen, eta gogor egin behar zitzaidala uste zuen, erronka zailenak jarri zizkidan. Negar asko ere egin nuen berekin», aitortu du.

Berea da «hamarrekoen sistema» ere. Batekoak, hamarrekoak, ehunekoak eta milakoak irakasteko kanikak eta egurrezko kutxatilik erabiltzen zituen. Metodoa erabat propioa eta aitzindaria zen. «Pottokak ziren buzti-nezko kanika batzuk, kristalezkoak garai hartan garestiegiak zirelako», gogoratzen du Mendizabalek. «Pottokak sailkatzeko egurrezko kutxatilik arotza zen ikasle baten aitak egin zizkion enkarguz. Eta halaxe ikasi genuen». Kanta propioa ere bazuen ariketak:



Andoni CANELLADA | FOKU

“Dendan andre Joxepa, trukutzen kaniakak eta, hamarreko polit bat, haren truk eman badeza. Tralara tralararara, tralara tralaralala...”».

Elbirak ehun abestitik gora zekizkien, eta denak banan-banan kantatu eta irakatsi zizkien ikasle guztiei. Egun helduak diren haur haiengan marka itzela utzi du horrek, denek, Elbirarekin praktikak egin zituzten andereñoek barne, oroitzen baitute gauza bera. Ahalegin handia egin zuela diote abesti bilduma zabala jaso eta transmititzeko. Batzuk egokitu eta euskaratu egin zituen, berak sinisten zuelako kantuak tresna baliagarriak zirela hezkuntzan. Duela gutxi, Mendizabalek kontatu duenez, Elbiraren ikasle ohiak bazkaltzeko gelditu ziren. «Jatetxe bila aritu ginenean argi utzi nahi genuen gurea bazkaria bakarrik ez, kantatzeko saioa ere bazela eta, beraz, zalaparta sortuko genuela jantokian. Mahaiaren bueltan argi gelditu zen Stockholmeko sindromea (barreak). Ikaragarri ondo pasatu genuen Elbirari esker, berari esker elkartu ginen, eta abestu genituen

60 abestitik gora. Hori da utzi digun ondarea». Eta hemen, kontaktaren puntu honetan, Mendizabalek eman du gakoa: Elbira fenomeno bat izan zela, fenomeno soziala, kulturala.

EUSKARAZ PENTSATU ETA AMESTU

Euskara erabat debekatuta zegoen hartan, Donostian hitzik entzuten ez zela oroitzen dute. Ezkutuan egiten zen, egiten bazen. Askok, Kontxita Beitiak bezala, hizkuntza ere galdu zuten. «Nire amak nagusitan ikasi zuen euskaraz Elbirarekin, gau eskoletan, eta gero Bretxan, konfiantzazko baserritar baten alboan eseri eta harekin praktikatzen zuen erdi ezkutuan. Hura zen egoera», kontatu du Mendizabalek.

Horregatik, balio berezia ematen dio euskaraz alfabetatu izanari. «Euskaraz ikasi dut idazten eta irakurtzen Elbirarekin, nire lehen hizkuntza alfabetatua izan da, eta horrek hausten du aurreko guztiarekin. Mugarri bat da erabat euskaraz pentsatzen genuelako». «Eta euskaraz amestu!», gehitu du Uzinek. Ez dute aipatu gabe utzi nahi euskara ira-

kasteko nor-nori-nork sistema asmatu eta baliatu zuela.

Euskara orduan landa eremuko gauza zen, gogoratzen du Mertxek. «Baserritarrena, alegia, ezjakinena, eta estigma handia zegoen. Lotsa sentiarazten ziguten. ‘Esa es una casera’ esaten zen baten bat euskaraz aditzen bazen. Bizkorra oso, Elbirak gure amei eskatzen zien gu ondo jantzita eramateko. Demostratzeko modu bat zen, hizkuntzari estatusa emateko». Gutxitan bazen ere, Alde Zaharreko haurrak Alderdi Ederreko parkera joaten zirela oroitzen dute, eta han, beste jende klase baten artean, ‘kategoria’ ere bazegoela erakusten zuten. Bulebarretik barrura Alde Zaharra zen; handik kanpora Donostia. Hondartzan ere eremuak zeuden. Parte Zaharrekoak lehenengo arrapatatik Nautiko aldera jartzen ziren. «Perla eta toloak beste mundu bat ziren guretzat».

Edonola ere, Donostiako burgesiak ere Elbiraren eta oro har ikastola klandestinoen biziraupenean zeriku-

sia izan zuela aipatu dute. «Hori horrela izan zen eta hala aitortzea zilegia da. Donostian ikastetxe asko zeuden, eta hala ere, debekatuta zegoen eta euskaraz arnasten zuen ikastola batera eraman zuten zenbaitek ezkutuan alaba edo semea». Familia dirudun batzuek hartu zuten bide hori, Egia Kareaga sendiak kasu. Haien semeak, Miguel Marik, Down sindromea zuen, eta Elbirak egin zituen harekin irakasle lanak. Tarteka, beste ikasleekin elkartzen zuen. «Oso hezi-garria izan zen guretzat, bat gehiago zen gure artean, eta bera ulertzen eta errespetatzen irakatsi zigun», aipatu du Uzinek.

Egia Kareaga Donostiako familia dotore bat zen, goi klasekoa, eta ekonomikoki asko lagundu zuen Zipitria, besteak beste, behar zuen arropa erosiz. Dena kalitate handikoa, normalean Baionan erosten zizkieten gona plisatua, lurrean umeekin lasai eseri eta ez zimurtzeko, kapusaia eta «zapatata zoragarri batzuk». Bazituen bi koloretakoak ziren batzuk. Dauden argazki bakanetan ere ikusten zaio Elbirari gonaz eta jakaz osatutako jantzi batekin, oilar-hanka estanpatuarekin. Antza, Balenciaga etxean jostuna zuen lagun bat, eta Andia kaleko El Telar dendan ohialak erositara, bere aholkuei segituz, josi zion neurrirra.

Burgesiaren parte ziren gurasoak ez ezik, batez ere burgesia ez ziren hainbat eta hainbat gurasok egin zuten klandestinitatearen hautua, eta asumitu zituzten arriskuak haientzat preziatuena zena jomugan jarriz: seme-alabak. Horrek ekarri gaituela honaino uste dute. «Haiei esker gaude hemen. Antiguatik, Amaratik, Grosetik, Erdialdetik... auzo mordotatik etortzen ziren egunero-egunero, eta ama batzuek seme-alaba bat baino gehiago bazituzten, eguna joan-eto rrietan pasatzen zuten, bi orduko klaseak baino ez zirelako. Elbiraren meritua da, baina guraso haiena ere bai».

Gerora, Elbira gaixotu zenean, guraso haiek lagundu eta zaindu zuten bere azken etapen. Emandakoa jaso zuen, metafora ederrena irudikatuz.



Amaia Ballesteros

IRRITZIA:

LUR AZPIKO ABENTURAK



INGURUMEN AZTARNA

Ez dugu lurreko bizitza suntsituko (I)

 **BIOLOGIA /** Unai Garcia Martinez (Ingurumen teknikaria)

Duela 3.800 milioi urte inguru eratu zen bizitza Lurrean, urriko astearte batean. Haurtzaro eta nerabezaro aztoratu baten ostean, planetak errotazio abiadura moteldu zuen, bolkanismoak atsedentxo bat hartu, eta Ilargia urrundu ahala, ozeano globala ere baretzen joan zen. Ozono geruza ez zen existitzen oraindik, ez zuelako ez itsasoaren azalean ez agerian ziren irla txikietan eguzki erradiatziotik babesteko inor. Ozeano hondoan, hala ere, izpi arriskutsu horietatik ezkutatuta, fumaroletatik ateratako gas, mineral eta ur nahasketan lehen molekula organikoak eratu ziren, zeinak, energia hidrotermalaren laguntzaz erreakzionatuz, polimero konplexuago bilakatu ziren. Horien artean, inguruko konposatu kimikoak baliatuz bere buruaren kopia bat sortu zezakeen molekula bat. Pauso pare bat alde batera utzita: bizitza.

Organismo autorreplikatzailer horiek ozeano guztiak konkistatu zituzten milioika urtetan zehar. Batzuek, energia kimikoa lortzeko konpetentzia handia egongo zela aurreikusita, elikatzeke eguzki erradiazioa erabiltzeko ahalmena garatzeko baimena eskatu zuten, hondakin gisa oxigeno molekularrik askatu gabe, noski (ez molestatzeko).

Gauzak ez ziren asko aldatu 2.000 milioi urtetan: organismoak jaio eta hil; superkontinente batzuk eratu eta desegin; dozena bat eztabaida, askoz jota. Estres gutxi. Ez zen bizitzeko garairik zirrarragariena izan, baina noizbait zelula eukariotoa sortzeko aha-

Bizitzak milaka milioi urte behar izan ditu garatu eta dibertsifikatzeko, eta hondamendiek, klima aldaketek edo iraungipen masiboek funtsezko papera jokatu dute. Nahikoa itxaroten bada, suteek ondoren etorriko diren landareentzako elikagaiz hornitzen dute lurra, meteorito baten talkak eragindako milaka espezieren desagerpenak beste batzuen egokitzapen eta eboluzioa eragin dezakeen bezala. Bizitzak gizakia baino hamaika mehatxu larriago sufritu ditu historian zehar, eta bizitzak biziraungo du. Kasu honetan, ordea, erretako zuhaitza gara gu, meteorito azpian harrapatutako dinosauroa.

leginetan lasaitasuna behar da, eta hori aintzat hartzen zen. Beste garai batzuk ziren.

Hala ere, ale fotosintetiko batzuek, anbizioak itsututa (edo aspertuta), energia gehiago lortzeko aukera ikusi zuten beste fotosintesi era batean. Ura aukeratu zuten elektro-

emailtatzat, eta inolako begirunerik gabe ekin zioten oxigenoa askatzen zuen erreakzio berriari. Ondoren gertatu zena guztiok ezagutzen dugu ondo: metabolismo autotrofoaren festa, hondamendia.

Ozeanoak eta atmosfera oxigenoz bete ziren, anaerobioak

Hawaiiko Mauna Loa sumendia, munduko sumendi aktibo handiena, azaroaren 28an itzuli zen aktibitatera 40 urteren ondoren.
USGS | AFP PHOTO



ziren organismo gehienak zuzenean akabatuz. Horrek atmosferako metano kontzentrazioaren murrizketa eragin zuen, aurrekoak zirelako zintzo-zintzo planeta bero mantentzen zuen gasetako bat sortzearen erantzuleak, eta zati handi batek oxigenoarekin erreakzionatu zuelako. Eragindako klima aldaketa ikusita, fotosintesi oxigenikora bihurtutakoek beren erantzukizunari garrantzia kentzeko argudioak proposatu zituzten, hots, berotegi efektua areagotzen zuen karbono dioxidoa emititzen zutela, baina bi molekularren arteko beroketa potentzial-diferentzia kontuan hartzea ahaztu zuten. Tenperatura bortizki jaitsi zen, eta Lurraren gainazala ia erabat izoztu. Eguzki izpietatik isolatuta, organismo fotosintetikoek biziraupena ere kolokan geratu zen 300 milioi urtez.

Zorionez, izan ziren izoztu gabeko eremu txiki batzuk, bizitarako babesleku bihurtu zirenak. Denboraren poderioz, gertakari honek dibertsifikazio biologikorako aukera berriak sortu zituen. Elikatzeko oxigenoa baliatu zezaketen bizidunak garatu ziren, eta metabolismo berriek morfologia konplexuagoak garatzeko baliabideak eman zizkieten organismoei, ondoren ale ezberdinen arteko interakzioei esker eboluzioa bultzatuko zutenak.

Gaur egun Oxigenazio Handia deritzogu gertakari horri, Lehen Iraungipen Masiboa. Bizitza konplexua garatzeko ezinbestekoa izan zen, eta gu ez ginatkeen hemen egongo bakterio fotosintetiko berekoi horiek eragindako sarraskirik gabe. Garai horretan Iraungipen Masiboa soilik deitu zioten, noski (perspektiba falta).



Itziar Elizondo Iriarte
Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

Hitzez hitz

Garai batean egunkariak jaten genituen. Hitzez hitz, esaldi bat bera ere irensteari utzi gabe. Berezi neguko igandee-tan, ez zegoen gauza ho-berik gosaldu bitartean egunkariak irakurtzea baino. Orain ez bezala, denbora ematen genuen irakurtzen, denbora genuelako. Izan ere, ordu-erik flakatzeko dieta jarri dietenetik ematen du ez dugula ezertarako astirik. Garai haietako ordu luze eta lodiak faltan botatzen ditut, gogoeta nostalgikoek ezer gutxi balio duten arren.

Egunkariak diot, pluralean. Gustuko genuen berrien izenburuak alderatzen ibiltzea, haiek orrietan hartzen zuten espazio eta kokapenaren gainean ildo editorialem nahitasuna antzematen. Hau da, irakurketari denbora emanez; eta erreportajeak, elkarrizketak, zutabeak irensten genituen bitartean, harritzen, haserre-tzen, pozten ginen. Hitzez hitz.

Gaur egun, aldiz, apenas «pintxopoteatzen» ditugu berriak. Eta ez da bakarrik pantailan irakurtzen ditugulako nagusiki. Egunkaria mundua ikuskatzeko paperezko etxe bat da, non informazioz eta iritziz beteriko gelak banaka bisita daitezkeen, eta aldi berean denak batera osotasun bat sortzen duten, espazio jakin bat. Eta hitzekin eraikitako materialtasun horretan, gaiak, ideiak, berriak, iritziak, istorioak gure burmuinean su txikian kozinatzen ditugu batera, ez banan-banan. Aldiz, albisteak pantailan, batez ere sare sozialen bidez jasotzen ditugunean, bozgorailu bakarti, temati eta zaratsutsuak dirudite, klikatzeko oihu egiten ditugutenak.

Gaur, goizeko kafea hartzen, mugikorreko pantailan irakurri dut gero eta jende gehiagok albisteekiko in-teresa galdu duela, eta joera hori na-

barmena dela mundu zabalean. Digitalizazioak «infoxikazioa» ekarri du, eta pertsona askori are neke psikologikoa eragiten dio berri txarrez inguraturik egoteak. Beraz, dimisio handiak –batik bat Ameriketako Estatu Batuetan gertatzen ari den ‘big resignation’ delakoa, alegia, langileek beren borondatez lana uzten dutela adierazten duen kontzeptua– badu bere baliokidea hedabideekiko harremanetan: dimisio informatiboa.

Eta hori ez da albiste ona. Ez komunikabideentzat, ez herritarrentzat. Hedabide eta kazetari profesionalak behar ditugu botere guztien jarduna kontrolatu dezaten, abusuak ikertuz, pertsonen arazoak bistararaziz, eta ez bakarrik prentsa bulegoetan botereak sortutako berriak argitaratuz. Alegia, beren eginkizuna hitzez hitz hartuz, pantailaratu den egunerokoan betiko irakurleak eta irakurle berriak pantailaz pantaila bereganatuz! •



Garai batean egunkariak irensten genituen. Luis JAUREGIALTZO | FOKU

{ koaderno } **Xabier Izaga Gonzalez**

Lope de Vegak ez zuen bat-batean bota bere sonetoa

Poema bilduma bat plazaratu berri du Har-kaitz Canok, "Pozaren erdia". Bilduma osatzen duten 64 poemetan ezohiko egitura baliatu du: sonetoa. Ezohikoa baina ez ezezaguna. Konposizio poetiko hori maiz asko metapoesia egiteko erabili izan da, eta Canok ere bere zenbait piezatan hala egin du («Rolls Royce auto bat da sonetoa, alajaina...»). Horixe egin zuen Felix Lope de Vega poeta espainiarrak "Un soneto me manda hacer Violante" ezagunean, metapoesia eta jolasa, sonetoa nola egin azaltzeko sonetoa.

Orain aspaldi ez dela irakurri nuen saiakeratxo batean Jorge Leon Gusta katedratiko katalanak dioenez, "Lope" filmak pentsarazten duen arren soneto hori lagun artean bat-batean bota zuela, ez da inprobisazioa, ezta originala ere. Eta badirudi ez dela, ez, inprobisazioa; izan ere, 1617an argitaratutako komedia batean errezitatzeko idatzi zuen. Originaltasunari dagokionez, haren jatorria, Leonen us-tez, Pieraccio Tedaldi poeta florentziarraren beste soneto bat da, XIV. mendekoa. «Haren antza hain da nabaria, ezinezkoa ematen baitu Lopek ez ezagutzeak», dio katedratikoak. Eta XVI. mendeko beste soneto oso antzeko biren berri ere ematen du. Edonola ere, ez dio meriturik kendu nahi poeta madrildarrari, hura bere testuinguruan kokatu baino. Espainiako Urrezko Mendea delakoan imitazioaren printzipioa nagusi zela dio, egileek ez zutela hutsetik abiatuta asmatzen, tradizio baten barruan baino, eta bertan ahots propioa bilatzen zutela.

Neurriari dagokionez, Canoren sonetoez hamalau silabako lerroak dituzte, eredu alexandrinoaren arabera; Shakespearek hamarrekokoak idazten zituen; soneto frantsesak hamabi silabako lerroak ditu, eta espainiarrak hamaika silabakoak. Hamaikakoak ditu Lope de Vegak Violanteri egindakoak... eta hamaikakoak Gabriel Arestiren biek, Durangoko Azoka zabal-

du orduko ezagutarazi zituztenek. Beharbada, hizkuntza dela-eta, 1953ko poema bi horiek ez dira Durangorako egokienak, baina erlijio liburuan idatzi zuen jabetza-oharra edonorako aproposa da, hizkuntza gorabehera: «Liburu hau Gabriel Aresti Seguiolarena da, bere gogoz kontrako arrazoiak direla eta».

Durangoko zurrumbiloa igarota, euskal kulturaren hurrengo bilgunea Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala izan zen astebeteren buruan. Finala baino lehen eta Arestiren sonetoen berri jakin aurretik, Bilboko saioan haren beste poema baten aipua egin zuen Saioa Alkaizak bere ganbarako lan bikainean, finalerako moduko bertsolaria dela erakutsita; "Nire aitaren etxea" poemarena, hain zuzen. «Ez otso, ez lukurreri», biak batera baizik: «bankuaren abixua».

Durangoko zurrumbiloa igarota, joan den igandekoaren gainean, zer esan. Iruñean, hiru emakume oholtza gainean, batez beste bertsolari gaztexeagoak... ez zegoen gehiago eskatzerik

Eta joan den igandekoaren gainean, zer esan. Iruñean, hiru emakume oholtza gainean, batez beste bertsolari gaztexeagoak... ez zegoen gehiago eskatzerik. Nik ere finalerako zerrenda egina nuen, baina ez nuen asmatu. Launa sartuko zirela espero nuen, eta hala nahiko nukeen, baina sartu zirenetatik inor kanpoan geratu gabe. Edonola ere, hogeitau bertsolari gehiagoko finalista taldean ez nuen huts egin.

Bertsolaritzak, Lope de Vegak ez bezala, ohikoa du bat-batean egitea. Baita, bertsolariek joan den igandean ez ezik urtean zehar ere erakutsi izan duten moduan, tradizio bat oinarri, berritu eta ahots propioa bilatzea ere. Eta hura aurkitzea. •

«MESIAS SARRITAN»

Kanta ospetsuaren 130. urteurrenean,
Bartolome Ertzilla berreskuratuz

Durangoko alde zaharren bihotzean, egun desagertuta dagoen Erdi

Aroko harresiaren barneko hirigunean, iraganaren eta gaurkotasunaren arteko bidegurutze bat agertu zitzaiola ohartu zen bat-batean Marian Diaz Gorriti dokumentalista: Balbino Garitaonandia (1857-1916) idazlearen plazaren kale kantoiari bizi da betidanik Marian. Metro eskasetara Bartolome Ertzilla kalea dago. Txikia da, pasabide arrunta. Ez da bereziki polita; ia oharkabean atzean uzten duzun horietakoa.

Kalearen anonimotasun horrek berak Bartolome Ertzilla (1863-1898) konpositorearen bizitzaren metafora irudika dezake: gazte hil zen, 35 urterekin, baina hainbat lan utzi zituen, eta horietako batzuk bere atzetik etorritako belau-naldien imajinarioan iltzatuta gelditu dira... Halere, Bartolome Ertzilla musikari hura ezezaguna da oso, ia misterio bat

 **MUSIKA** / Amaia Ereñaga

Bartolome Ertzilla (1863-1898) durangar konpositorearen bizitzaren ia arrastorik ez da gelditu. Gazte hil zen, 35 urterekin, eta argazki bakarra iritsi zaigu, agian apokrifoa. Gabon egunean bere "Al nacimiento del hijo de Dios" lanaren ("Mesias sarritan" edo "Belengo portalian") estreinaldiaren 130. urteurrena beteko da.

bihurtu arte. «Argazki bakarra gordetzen da, La Amistad musika bandaren zuzendaria izan zenekoa. Baina agian argazkian dagoena ez da bera, musika banda behin bakarrik zuzendu zuelako eta kasualitatea beharko zuen izan hain justu egun horretan argazkia atera izana», azaldu du Marian Diaz Gorritik.

Mariani iraganeko «ahantzuraren lainoan» galdutako sortzaile hau gurutzatu zitzaienetik lauzpabost urte pasatu dira. Paper zaharren artean arakatzeko eman dituen

urteak izan dira, garai hartatik heldu zaigun dokumentazioa miatuz: prentsa, herriko kronikaren liburuak... Azkenik, hainbeste buruko min eta aurkikuntza goxo ekarri dizkion "obsesioak" sormenaren bidea zabaldu dio: liburu bat kalera tu zuen 2019an ("Bartolomé de Ertzilla 1863-1898. La primavera del pianista", Carlos Lopez Pardorekin batera –autoekoizpena–) eta abendu honetan bildumagileentzat altxortxo bihurtu daiteken biniloa aurkeztu du Durangon bertan ("Mesias sarritan eta Belengo

portalian" izenekoa, Bogoroditsie abesbatzaren, Herri Maite akordeoi taldearen, Bidane Txopitea sopranoaren eta Iker Sagala txistulariaren partaidezarekin grabatuta).

BALBINO ETA BARTOLOME

Jarrai dezagun Durangoko herrigunetik paseatzen. Bartolome Ertzilla kaletik jarraituta ondo-ondoan Santa Ana plaza dotorearekin egingo dugu topo. Aurrez aurre ibaia eta jau-regi zaharrak ditugu, eta guztiari gailentzen herriko harresi barnera sartzeko eraikitako arku ikonikoa dago. Santa Ana izena du eta izen bereko plaza-rako sarbidea da. Han, Santa Ana elizako koruan, 1892ko abenduaren 25ean estreinatu zen "Al nacimiento del hijo de Dios", hiru ahotserako koroa eta tenore bakarrarentzako zortzikoa.

Bartolome Ertzillak gaztelaniazko titulua jarri zion gabon kantari, testu osoa euskaraz idatzita zegoen arren. Horregatik, konposizioari hasiera ematen dioten bi hitzekin

Beheko irudian, Durangoko La Amistad musika banda liberalaren partaideak, 1893 inguruan. Erdian, bizar eta batutarekin, Bartolome Ertzilla. Dagoen argazki bakarra omen da. DURANGOKO ARTXIBO HISTORIKOA



(“Mesias sarritan”) ezagutu ohi da kanta hau; hau da, abesbatzaren zatiaren hasieran agertzen diren lehen bi hitzekin. Orduetik gabon kanta hau Euskal Herriko txoko guztietan entzun ahal izan da, erabat herrikoia bihurtu arte. Pentsa, gabon kanta honen barneko zortzikoaren bi hitzekin ere ezagutu ahal izan da: “Belengo portalian”, alegia.

Bata (“Belengo portalian”) zein bestea (“Mesias sarritan”) erabili ohi dira Gabonetako otorduen osteko abesti tradizionala bihurtu den kanta izendatzeko. Mende baten bueltan herriak bere egin du.

Kantaren letra Balbino Gari-taonandiak idatzi zion Ertzi-llari. Bai, Marian Diaz Gorriti-ren etxe ondoko plazari izena ematen dion Balbino bera da. «Konturatzen al zara nola na-goen inguratuta?», dio emakume honek umoretsu. XIX. eta XXI. mendearen arteko “bide-gurutze” batean dagoela dirudi. Hemen kantaren letra: «Mesias sarritan agindu zana / aingeru artean dator gugana (bis). / Gloria zeruan bakea hemen / kantari aingeruak dagoz Belenen (bis). / Belengo portalean, negu gogorren, / jaio da gure Jesus askatxo batean. / Estalki gabe dago, abere artean / guztiz ahaltsua dana zeru ta lur-rean. / Hantxe dago / gure Jesus. / Hantxe dago, bai. / Haurtxo txikia / askan dago / amak esan dio / lo egiteko / baina haurtxoak / begiekin / esaten dio: / ama ezin».

BOHEMIO BATEN ABENTURAK

Marian Diaz Gorritik Carlos Lopez Pardoren laguntzarekin kaleratutako “Bartolomé de Ertzilla 1863-1898” liburuaren sarreran, “Musikagile inspiratuaren oroi-menez” izenpeko ataltxoan, “El



noticiero bilbaíno” egunkariak 1887ko apirilaren 17an argitaratutako irunskin adierazgarri bat irakur daiteke: «Jakín izan dugunez, La Amistad izeneko heziketa eta aisialdi elkarteko zuzendaritza batzordeak piano-jotzaile izendatu du Bartolome Ertzilla konpositore eta piano-jotzaile ezaguna, eta urteko 1.000 pezetako soldata eman dio. Era berean, entzun dugu Ertzilla jaunak, izendapen horren berri izan duenean, es-

Marian Diaz Gorriti Santa Anako arkupearen aurrean. Ondoan, eliza dago. Han estreinatuta zen gabon kanta ospetsu hau.

Monika DEL VALLE | FOKU

leitu zaion soldatari uko egiten diola, harik eta elkarteak, sortu berria denez, beharrezkoagoak dituen beste betebeharrak bete arte. Ertzilla jaunaren eskuza-baltasun hau jarrera txalogarria da erabat».

Ados, hemen pertsonaiaren izaeraren arrasto bat ematen zaigu, baina nor zen Bartolome Ertzilla? 1863ko abuztuaren 24an jaio zen Durangon, seguruenik Barrenkale kalean, anai-arreben artean hamarga-

rrena. Aita, Juan Thimoteo de Ercilla y Zenarruzabeitia, alkatua izatera iritsi zen; antza, liberala zen. Ama, Josepha Teresa Rementeria Garate. «Bartolome jaio zenean 21 urte zeramatzen ezkondu eta zenbait seme-alaba hil zitzaizkien, 7 urte bete ez zituzten haurrak», dio Marianek.

Garai hartan karlismo-traditionalismoaren eta liberalen arteko talka gori-gorian zegoen. Edo kontra edo alde behar zenuen egon. Marian Diaz Gorritik eta Carlos Lopez Pardok osatu duten Ertzillaren biografian garai nahasi horien kronika bizia islatzen da: Borboien aurkako 1868ko iraultza aurkitu dezakegu orrialdeotan, Isabel II. erregina espainiarrak Donostiako oporretatik erbesterako bidea hartu behar izan zueneko; hemen dago Lehen Gerra Karlista ere, Alfonso XII. errege berriaren izendapena, euskal foruen indargabetzea 1876. urtean, lehe-

MUSIKA ESKOLA BAT ETA «HATOR HATOR»

Bere omenez izendatutako kalea xumea den arren, Bartolome Ertzilla ez da ahanzturan erori Durangon. Herriko musika eskola dotoreak bere izena darama –Azokan, Ahotseneko aurkezpenak ere bertan egin dira– eta, adibidez, joan den igandean bi ekitaldiren protagonista bihurtu zen Ertzilla: bata, herriko hainbat musikaririk grabatutako biniloaren aurkezpena, Marian Diaz Gorriti eta Carlos Lopez Pardok

hauspotuta; bestea Durangaldeko Jaizale txistulari taldeak eman zuen gabon kontzertua, non “Mesias sarritan” kantuz gain Antonio eta Juan Cruz de la Fuente anaiek, “Durangoko plateruek”, sortutako “Hator hator” jo zuten. Beraz, beste bi datu kontuan izateko: XVIII. mendearen bukaeran jaiotako zilargin edo plateru hauek kanta herrikoi horren egileak direla eta Plateruena antzokiaren izena haiengandik datorrela.

nengo industrializazioa eta Bizkaian izan ziren lehenengo grebak edo euskal kultura tradizionala bultzatzeko sortu zen mugimendua...

PROLETARIOEN DOINUAK

Iparragirreraren mireslea zen eta euskal folklorea “berpiztearen” aldeko mugimendu horren barnean kokatu zen hasieratik Bartolome Ertzilla musikagile gaztea. Bilbon musikako lehen ikasketak egin ondoren, XIX. mendeko bigarren zatiko euskal musikagile guztiak legez, Madrilera jo zuen 1880an ikasketetan sakontzeko asmoz Musika eta Deklamazio Eskola Nazionalan. Bi urte beranduago Madrilen bertan zabaldu zen Círculo Vasco-Navarro delatuko Miguel Unamuno ezagutu zuen eta seguruenik Julian Gaiarre tenorearekin lehen harremanak izan zituen. Bilbon pianoan lagundu zion nafar tenore ospetsuari 1886an.

Madrilen argitaratu zituen lehen partiturak; esaterako “Recuerdos de Guernica” izenekoa, pianorako idatzitako zortziko bat. Gero Bilbora itzuli zen, Bizkaiko hiriburuan borborka zegoen kultur giroan murgiltzera: konposizio lanarekin batera, irakaskuntzan ikasle haiei eginiko partitura dexente gorde dira; pianoan jarduteko idazten zien-, pianoa jotzen, instrumentu eta ahots taldeen zuzendaritzan eta kultur ekitaldien antolaketan lanetan ibili zen Bartolome, hala nola Sociedad Bilbainaren musika gaualdiak edo, Antoine d’Abbadiek hauspotuta, Durangoko Euskal Jaiak prestatzen. Abbadiari idatzi zion, hain zuzen, “Suspirus eta negarres” zortziko.

«Bartolomeraren bizitza laburrak izugarritzko aberastasuna-

ren inpresioa ematen digu –aipatzen du Carlos Lopez Pardok–. Arrazoi askorengatik, bere familiagatik, bere joera pertsonalengatik, bere inguruan bildu zituen lagunengatik, ematen du gertatzen ari ziren gauza garrantzitsu guztietatik gertu egon zela. Ez erdian, agian, baina bai gertu. Bere musikak garai hartako joera nagusiak biltzen ditu. Balsa, mazurka, txotis, habanerak... aristokraziaren saloietatik burgesiaren aisia alaitze-

«Bartolomeraren bizitza laburrak izugarritzko aberastasunaren inpresioa ematen digu; gertatzen ari ziren gauza garrantzitsu guztietatik gertu egon zela»

Iparragirreraren mireslea zen eta euskal folklorea «berpiztearen» aldeko mugimendu horren barnean kokatu zen hasieratik Bartolome Ertzilla musikagile gaztea

«Al nacimiento del hijo de Dios» izeneko kantaren partitura. Letra Balbino Garitaonandiak idatzi zuen. ESPAINIAKO LIBURUTEGI NAZIONALA

ra pasatu ziren doinu hauek, eta gero proletarioen aisialdia alaituko zuten».

RAPSODIAREN ITXIERA

Erroldari esker, Bartolome Ertzilla 1894an Durangora itzuli zela jakin ahal izan dute. Bertako ostatu batean hartu zuen aterpe; bohemia zen, antza. Herrian musika banda bat zegoen, baina tradizionalista. Liberalek beste bat sortzeko erabakia hartu zuten, eta La Amistad deitu zioten. Azkenean, hainbat tirabiraren ostean musika banda biak elkartzeko akordiora iritsi ziren, baina giroa bero zegoen. Bartolome Ertzillak behar zuen zuzendaria izan, inork ez zuen hori zalantzan jartzen... baina bandako lau musikaririk bere aurkako gutuna bidali zutenean, “axolagabe” hutsa zela esanez, unea latza izan zen. Beste musikariak bere defen-

tsan atera ziren baina, halere, eragina izan zuen: 1898. urteko bukaera zen, azaroan, 35 urte baino ez zuen musikagile gazte hura ohera sartu eta hil da aurkitu zuten hurrengo egunean. Marian Diaz Gorritik ez du haren ondorengorik aurkitu. Inor ez. Familia honen arrastoa galdu egin da mende baten buruan.

Bandako kideek hilkutxa eramane zuten, txandaka, kanposantura arte. 1898ko abenduaren 15ean “Noticiero Bilbaíno” egunkariak haren heriotzaren berri eman zutenean, “La Rapsodia Euskara”-ren egilea zela aipatu zuen. Ados, hori izan zen bera bizirik zela izan zuen arrakastarik handiena, baina “Mesias sarritan” kantak, hori aitortu behar da, adin batekoek urteko sasoi honi lotuta dugun haurtzaroko “soinu banda” izaten jarraitu du.

Dena aldatzen da?

Beste urte bat joan zaigu, 2022ak ere agur esango digu egun gutxi barru. Norbaitek esango dit zergatik pasatzen zaizkidan orain urteak hain azkar. Nire amak aspaldi abisatu zidan: «30 urtetik aurrera urteak binaka bezala igarotzen dira». Amak arrazoi, edo ez hainbeste, zeren eta binaka baino gehiago launaka ari zaizkit joaten azken hamarkada honetan. Tira, eta jarraitu dezatela pasatzen, e? Alternatiba baino hobea baita...

2022ak albiste ugari utzi dizkigu. Denak erreparatzeko lekurik ez dago hemen. Ines Osinagaren ahotsean entzun

dezakegun Mercedes Sosa handiaren abesti handi batek dio: «Dena, dena aldatzen da, dena aldatzen da». Eta bai, egia da aldaketak egon direla atzean uzten ari garen urte honetan. Mundu mailakoak batzuk, gertuagokoak besteak eta pertsonalak ere bai. Baina hala ere, badira aldatzen ez diren gauzak, asko, gainera; eta hona bakar batzuk ekarri nahi nituzke gaurkoan, izugarri kezkatzen nautelako. Batetik, euskal presoen aurkako eraso eta mendeku zikina, adibide gisa 70 urtetik gorako lagunarena, 3. graduaren egonik berrespeteratu dutena. Bigarrena, palestinar

herriaren aurkako genozidioa. Hirugarrena, etxegabetzeak, berdinez izanik haurrak eta agureak egotea tartean. Eta azkena, migranteen egoera makabroa; burutik ezin kendu nabil barku erraldoi bateko popako helizeen gainean eserita egunak igaro zituzten pertsonen irudia. Dena ez da aldatzen ez, edo agian bai, aldatzen da baina okerrera.

Badugu zer hausnartu eta zer borrokatu datorren urtean ere, aldaketak hobera izan daitezkeen. 2023an espero dut aldarrikapenez betetzea gure kaleak, zertaz kezatu badugu eta zer aldatu ere bai. Kanean ikusiko dugu elkar. •

**Miren Azkarate
Badiola**

Olentzero eta Mari Domingi maiteak:

Asier Aiestaran

Azkenean iritsi da eguna –edo gaua, hobeto esan–, eta hementxe duzue nire gutuna. Xumea, baina mimos idatzia. Trasteak lehen ere nahikoa baditudanez, beste bide batetik noa. Goazen:

Lehenik eta behin, zaintzaileak zaintzeko eskatu nahi nizueke. «Zer moduz zaude?» galdera entzuten ez duten horiei besarkada baten berotasuna eskaintzea nolabait. Ziur zuen eskarmen-tuarekin badakizuela nola egin.

Bigarrenik, une txarrak pasatzen ari diren guztiei irribarre bat ateratzea

nahi nuke. Erietxean daudenei, presoek, haien senideei, etorkizuna beltz ikusten duten gazteei, oraina beltz ikusten duten zaharrei, edozein mota-tako prekaritatea bizi dutenei... (Irribarre baten ordezkari bi ere izan daitezke ahal baduzue, baina nahiago dut neurrian eskatu gehiegi eskatzeagatik ezer gabe geratu baino).

Abiada hartu dudanez, gizartean gizatasun apur bat zabaltzea ere eskertuko nizueke. Beste mundukorik ez: gure arteko tratuan, migranteekiko jarreraren, agintari desberdinen jardunean...

Eta azkenik, niretzako gauzatxo bat ere bai: adore pittin bat. Esaten eta egiten ausartzen ez naizen gauza horiek esan eta egiteko. Batez ere, asko estimatzen ditudan pertsonak asko estimatzen ditudala jakitea nahiko nuke. Gertukoek, noski, baina ez hain gertukoek ere bai. Agian zuek helarazi zenezakete mezua, baina uste dut balio gehiago duela nik neuk esaten badiet.

Horiek aurtengoak, ez nuke pasatu nahi. Eta eskatutako zerbait ez badaukazue txokolate ontza pare bat ere beti eskertzen dira. Mila esker! •



PANTAILA TXIKIAN

Gaizka Izagirre Brosa

2022ko telesailik onenak

Somebody Somewhere

HBOMAX

Bizitzari aurre egiteko (ia) ilusio gehienak galdu dituen 40 urtetik gorako emakume baten begietatik (Sam), bakardadeari, etsipenari eta frustrazioari buruzko erretratu zoragarria marrazten duen telesaila da honakoa, guztia pertsonaien irribarre ahaltsuekin bustia. Pertsonaia horiek bizitzak ez dituela merezi duten moduan tratatu sentitzen dute, eta telesaila maisuki mugitzen da komedia eta dramaren artean, ikusleari etengabe irribarreak zein malkoak ateraz.

Zergatik ikusi beharko zenuke proposamen hau? Hasteko, Bridget Everett-en interpretazio lana zoragarria iruditu zaidalako, hunkigarria eta dibertigarria aldi berean. Iraupen laburra duten zortzi ataletan hainbat gai mahaigaineratzen du: homofobia, alkoholismoa, depresioa, gutxiengoentzako gune seguruak sortzearen ga-

Urtea amaitzean den honetan, pantaila txikiaren arloan lehenengo ondorio argia atera dut: Netflixen eduki eskaintzak gainezka egiten duen arren, gero eta zailagoa da bertan kalitate goreneko telesailak aurkitzea. Eskaintza interesgarriekin topo egiteko aukera askoz gehiago dibertsifikatu da gainerako plataformetan. Bigarrenik, Apple tv+-ren kalitate gorakada nabarmena. Honako zerrenda 2022an estreinatu diren telesail berriekin osatu dut. Ez larritu, beraz, «Better Call Saul», «The White Lotus», «Euphoria», «The Boys» edo «Stranger Things» ikusten ez dituzulako.



rrantzia, AEBetan hiri handietatik deskonektatuta bizitzeak eragiten duena, erlijioak gizartean duen eragina, iragana onartu eta bizirik irauteko beharra, edo espero ez zenuen adiskidetasun harremana sortzea zeinen zoragarria izan daitekeen.

Foku mediatiko eta marketin kanpaina guztietatik at geratu den ekoizpen txiki hau harribitxia iruditu zait.

telesailari ñabardurak eta sakontasuna ematen dizkiona.

This Is Going To Hurt

Movistar

Odola, mina eta malkoak. Iruzikin hau hasteko aukeratu ditudan hitzak kontuan izanda telesail beliko bati buruz ari naizela dirudien arren, ospitale publiko bateko obstetriziaz eta ginekologia sailean mediku lana egiten duen gure protagonistaren bizipenei buruz ari naiz. Hain estresagarria da telesailak transmititzen duen egunerokoa, ezen umore oso beltza duen komedia izateaz harago, thriller frenetiko bat dirudien.

Ben Wishaw-k Adam gorputzen du. Mediku egoiliarra da eta bere bizitzak infernu iraunkorra dirudi. Ospitale bateko erditze eta ginekologia hegalean egiten du lan, eta burdinazko eskuarekin gobernatzen du zuzendari oso zorrotz batek. Protagonistaren une emozional bortitzenetan, laugarren hormaren haustura tartekatzen da, alegia, pertsonaiak zuzenean ikusleari hitz egiten dio, eta modu honetan sortzen den konplizitatea istorioaren euskarrietako bat bilakatzen da.

Ahaztu «House», «Greys Anatomy» eta tankerako mediku telesail konbentzionalak. Oso gutxitan ikusi eta bizitako sekuentzia estresagarriak, gogorak, dramatikoak eta, noski, baita zoriontsuak ere pantailaratu baitituzte Lucy Forbes eta Tom Kingsley sortzaileek, guztia gainera, umore (oso) beltzez

In My Skin

Filmin

Kayleigh Llewellyn-ek sortutako komedia dramatiko beltza da, familiako bizitza disfuntzionala isilpean gorde nahi duen nerabe baten bizitza gogorra azaltzen duena. Bethan da protagonista, bere bizitza familiarra lagunei zein irakasleei ezkutatzeko dien neska galesa. Guztie gauza bera esaten die: aita funtzionarioa dela eta amak giza baliabideen departamentuko enpresa batean lan egiten duela. Baina Bethanen errealitatea oso bestelakoa da, familia egoera jasanezina baita oso.

Telesail gazi-gozoa da, «coming-of-age» generoaz baliatuz komedia eta dramaren artean mugitzen baita une oro, eta ikusleari familia egoera guztiz lazgarria helaraztea lortzen du. Gidoi mailan bikaina iruditu zait, eta ikus-entzunezko lengoaiari dagokionez ere nabarmen dena; une jakin batzuetan laugarren horma hausten du protagonistak, eta bere pentsamenduen off-eko ahotsarekin batera oso ondo erabiltzen den baliabidea da,





bustia. Egoera horiei ezinezko ordutegiak dituzten lanaldi amaigabeak gehitzen badizkiegu, lo faltaren edo nekearen erruz harturiko erabaki txarrak, une surrealista beteriko istantak biziaraziko dizkigute.

Lan mota honetan gertatzen dena kontatzeaz gain, arrazakeria, lan prekaritatea eta gizarte britainiarreko gai polemiko gehiago ere salatzen ditu; erditzea normaltasunez garatzen ez denean sortzen diren albolteak adibidez.

Slow Horses

Apple tv+

2022an estreinatutako hamar telesail aipagarrien argazkiak.

“Slough House” –zingirako etxea– Londresko kale ilunetan ezkutatuta dagoen bulego baten izena da. Ezkutatuta, MI5ekoa delako (barne segurtasunaz arduratzen den Erresuma Batuko inteligentzia zerbitzua), eta “zingira” ezizena, bertako langileak aurreko misioetan porrot egin zuten agenteak direlako, lehen mailako eginkizunetatik baztertuak izan diren agenteak, egoera prekarioan ari direnak.

Talde horren burua Jackson Lamb dugu, itxura kaskarrekoa, zikina, jasan ezina, alkoholikoa, manipulazionala, baina baita gupidagabea eta oso era-

ginkorra ere, Gary Oldmanek maisuki gorpuzten duena. Talde supremazista batek gazte pakistandar bat bahitzen duen unean hankaz gora jarriko du Zingira eta, noski, Britainia Handiko inteligentzia zerbitzua. Hortik aurrera, akziozko espioitza thrillerren osagarriak erabiliz eta ironia zein umore beltz pintzelkadak, saguaren eta katuaren arteko jokoan murgiltzen gaituen telesail adiktibo bat aurkituko duzu.

Ezin da alde batera utzi “Slow Horses”-ek inteligentzia agentzia britainiarren jaurtitzen dion dardo zehatza eta pozoi-duna, eskuin muturreko tal-

deekin dituen lotura zuzenak edo zeharkakoak eta bere helburuak lortzeko nola erabiltzen dituen erakutsiz.

Black Bird

Apple tv+

“Mindhunter” edo “True Detective”-ren erako proposamenak gustuko badituzue, adi izenburu honi. Premisa zentzugabea dirudien arren, benetako gertaeretan oinarritzen den telesaila da honakoa.

Jimmy Keene (Taron Egerton) droga trafikatzailerari hamar urteko kartzela zigorra

ezarri diote. Kartzelan sartu eta hilabete gutxira, ordea, bi aukera proposatuko dizkiote: lehen, dagoen tokian jarraitu eta hamar urteak oso-osorik betezea; bigarrena, aske utziko dute, baldin eta segurtasun goreneko espetxe batean sartu eta Larry Hall ustezko serieko hiltzailearen lagun egiten bada. Zertarako? Hainbat hilketaren aitortza lortzeaz gain, neska batzuen gorpuak non lurperatu dituen jakiteko.


Generoaren ezaugarri den polizia ikerketa ere topatuko duzu jakina, baina Dehanek zehaztasun milimetrikoz idatzitako elkarrizketetan oinarritutako thrillerra da. Telesailaren zimenduak Jimmy eta Larryren arteko elkarrizketetan ezartzen dira –“Mindhunter” telesail bikainarekin gogortzea saihetsezina da– eta bien arteko harremana katuaren eta saguaren arteko jokoa bilakatu den arren, bietako batek bakarrik daki jolasten ari direla.

Station Eleven

HBOMAX

Artea da guztiz kolapsatu den mundu baten euskarri nagusia, eta kultura, pandemia batean bizirauteko ezinbesteko elementua. Hori da telesail berezi, poetiko eta eder honek utzitako mezu garrantzitsuetako bat. Bi denbora tarte erabiliz –pandemia iristen den unea eta 25 urte geroago– mundu postapokaliptiko baten ikuspegi berri-tzailea aurkezten digun ekoizpena da, zeinetan, honelako narratibetan ohikoa izaten denaz beste, indarkeria ez den planetaz jabetu.

Tartean, pertsona sorta paregabea eraiki du Patrick Somerville sortzaileak. Haien garapena zoragarria iruditu zait, behar den denbora hartzen baitu ezagutu eta ulertu ditzagun. Une batzuetan, “The Leftovers” gogorarazi dit, eta hori asko esatea da.



Monster: The Jeffrey Dahmer Story

Netflix

Milwaukeekeo munstroaren istorioa azaltzen duen telesail ilun eta deserosoa. AEBetan, 1978-1991 artean, Jeffrey Dahmer izeneko serieko hiltzaile honek burutu zituen hilketa beldurgarriak ardatz dituena.

Gaizkia pertsonaien bidez erretratatzea lan liluragarria iruditu izan zait beti. Ikusle modura, benetan existitu den (ala ez den) pertsonaia ilun eta beldurgarri baten garapenaren testigu izatea itzela iruditzen zait, baina baita arriskutsua eta

oso zaila ere. Hamar ataletan horrelako munstro batekin empatia sentituz gero, eremu oso ilunetan sartzeko aukera egongo litzateke zuzendarien alde-tik eta moralki zalantzarria izango litzateke trataera hori. Aldiz, lehen segundotik pertsonaia hori nazkagarria eta jasan-zina egiten bazaigu, ez genituzke bi atal ere iraungo telesaila ikusten.

Ryan Murphy-ren abileziarik handiena justu erdibidean kokatu izana da; hau da, pertsona mespretxagarri, ilun eta oso krudela dela une oro erakusten duen arren, bere gizatasunaren zertzelada txiki batzuk ere era-

kusten dizkigu –aitarekin duen harremana, garai hartan homosexuala izateak zer zekarren, bizi izan zuen bakardadea...–, eta bien arteko konbinazioari esker sortzen den empatia (oso-oso) txiki-lagunduta, guztiz eramangarria egiten du telesail osoa.

Nabarmentzeko beste alderdia biktimei eman dien ahotsean datza. Hiltzailearen eta biktimen erradiografia txundigarri horien artean, kritika nahiko zuzen eta garbia tartekatzen da: ikerketa polizial hutsal eta tamalgarriaren gainean suma daitekeen homofobia eta arrazismoaren kiratsa.

Pachinko

Apple tv+

Istorioak XX. mendean zehar mugitzen gaitu Koreak Japoniaren inbasioan bizi izan zuen errealtatearen zati bat ezagutarazteko. Sunjaren begietatik egiten du bidaia hori, 1920ko hamarkadan hasi eta 1989ra arte. Testuinguru hain zabala izanda ere, tonua nahiko intimista da. Debekeatutako maitasun batekin hasten den istorio epiko eta intimoa kontatzen du, Korearen, Japoniaren eta Ameriketako Estatu Batuen artean bidaiatzen duen kontaktuzun bihurtu arte; gerra eta bakea, maitasuna eta galera... era guztietako osagarriak topatuko dituzu telesail honetan.

Hau guztia oso interesgarria izanik ere –are gehiago gertaera historiko horien inguruan dugun ezjakintasuna kontuan hartuta–, gaia ez da telesail honen bertuterik handiena; urteko telesail onenatarikoa bihurtzearen arrazoia nagusia, kontatzeko modua da, historia hori, intimoa eta orokorra aldi berean, nola pantailaratu duten alegia.

Testuinguru horretaz baliatuz, belaunaldi oso baten erretratua egiten du, beren seme-alabak eta bilobak aurrera ateratzeko sufritu eta ahal zuten guztia egin zuten emakume korearrena. Melodramarako joera duen garaiko drama bat bezala definituko nuke. Familia baten exodoaren eta identitatearen erretratua da, batez ere arbasoen kultura menderatu, mespretxatu, galdu eta erbesteratu denean.

Muntaia lan paregabeaz baliatuz, paraleloan kokatzen ditu gertaera guztiak, denboran etengabeko jauziak eginez. Hauek, nahasgarriak izan beharrean, ezinbesteko bihurtzen dira osotasuna hobeto ulertzeko, iraganaren eta orainaren arteko oihartzunak etengabe entzuten baititugu, eta batak bestearekiko duen eraginaz

kontziente gara. Atalak igaro ahala, solte geratzen diren hariak lotzen ditugu eta narrazio sendoari esker une emozionalak eta estetikoak biderkatu egiten dira.

The Bear

Disney+

Goi sukaldaritzaren alorrean eta munduko jatetxerik one-
nean lanean ari den chef gazte batek bere karrera eta ambizioak bazterrean utzi beharko ditu, Michael anaiak bere buruz beste egin ostean, Chicago itzuli beharko duelako, bere familiaren jatetxe txikia aurrera eramateko: "The Original Beef of Chicagoland", auzoko sandwich jatetxe xume bat.

Nortasun ikaragarria duen eszenaratzea erabiliz, auzoko sukaldaritzaren aldeko apologia bikaina iruditu zait telesaila, eta argumentuak pertsonaiak bere barne mundua sukaldaritzaren bidez nola beregiten duen erakusten digu. Jatetxe baten barruan gerta daitezkeen gorabeherak fisiko-ki eta mentalki kontrolatzeaz gain, anaiaren suizidioak dakarren kudeaketa emozionala ere presente egongo da une oro.

Era honetako negozio baten alde argitsu zein ilunak erakusteko ahalegin hori erreminta zinematografikoen bidez ere ezin hobeto gauzatzea lortu dute. Aparta!

Severance

Apple tv+

Bizitzeko lan egin ala lan egiteko bizi? Mark Scout-ek lantalde bat zuzentzen du Lumon Industries deituriko enpresan. Bertako langileak prozedura kirurgiko baten eraginpean daude eta beraien oroitzapenetan lan eremua eta bizitza pertsonala guztiz bereiztea eragiten du. Alegia, lanean ari diren bitartean ez dute bizitza pertso-



naleko ezer oroitzen, ezertxo ere ez; ez dakite non bizi diren, familiarik duten ala ez, edo zoriontsu ala triste bizi diren, esaterako. Lantokiko ateak gurutatu eta bizitza pertsonalera bueltatzen direnean, aldiz, alderantzizkoa gertatzen da. Badakite fisikoki non egiten duten lan, beraiek hala nahi dutelako baitoaz bertara, baina ez dakite zer lan mota egiten duten, zeintzuk diren lankideak, lana gorroto duten ala ez eta abar.

Lanaren eta bizitza pertsonalaren arteko oreka makabro eta harrigarri honetan kokatzen den esperimendu ausart hau zalantzan jartzen hasten den unean, ordea, Mark misterioz beteriko espiral batean murgilduko da. Gai eta istorio original honi, gainera, Ben Stillerrek maisuki zuzentzen duen lehen mailako aktore zerrenda gehitu behar zaio: Adam Scott, Patricia Arquette, Dichen Lachman,



John Turturro edo Christopher Walken. Estetika ere txundigarria iruditu zait.

Erakargarritasun nagusieta-ko bat Stillerrek mikromundu bat sortzea lortu izana da. Departamentu bakoitza ekosiste-

ma propioa da, eta bertan barne iraultzak, liskarrak eta uste-kabeko adiskidetasunak ere gertatzen dira. Guztia da hain aseptikoa, hain txukuna, hain garbia, hain zuria, baina era berean jariatzen duen lurrina

hain dago faltsukeriaz betea eta hain da artifiziala, ezen ikusle gisa oso deseroso sentiarazten zaituen, aztoragarria izateraino. Lagunartean eta familiar eztabaidak piztuko dituen harribitxia.



Edurne Larraza Mendiluze

Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria, UPV/EHU

Kathleen Booth (jaiotzez Britten)

Informatikaren historian garrantzia izan duten emakumeei buruz hitz egiterakoan, maiz pentsatu izan dut gehienetan software arloan aurkitzen direla emakumeak.

Informatikan emakume gutxi topatzen baditugu oro har, are gutxiago dira hardwarearen arloko emakume aitzindariak. Halere, behe mailako informatikan erreferentziatzeko izen bat orain dela gutxi ikasi dut. Zoritxarrez bere heriotzarekin batera izan dut bere berri: Kathleen Booth edo jaiotzez Kathleen Britten zena 2022ko irailaren 29an hil zen, 100 urte zituelarik.

Eta zer izan zen e-makume honek egin zuena?

40 eta 50eko hamarkadetan ezarri ziren gaur egun oraindik erabiltzen diren konputagailuen oinarriak. Garai horretan Andrew Boothek *Automatic Relay Computer edo Calculator (ARC)* delakoa diseinatu zuen. Kathleenek eta bere laguntzailea zen Xenia Sweetingek konputagailu hura eraiki zuten. Gerora John Von Neumannekin biltzeko aukera izan zuten eta haren ideiak entzun ostean ARC2 konputagailua diseinatu eta eraiki zuten, oraingoan, programak eta datuak gordetzeko adina memoriarekin. Horrela, ez zen beharrezkoa izango beste programa bat exekutatzeko etengailu guztiak aldatzea. Dena den, zeroko eta batekoen bidez programatu behar izatea astuna zen eta erroreak noizteko joera ere handia zen. Horregatik, gizakiarentzako ulerterrazagoa izango zen **mihiztadura-lengoaia** sortu zuen Kathleenek 1947. urtean. Orduan eman zitzaion izena *contracted notation* edo laburtutako notazioa izan zen.

Mihiztadura, mihiztatzea... ez da maiz entzuten den hitza. Nahiko teknikoa da eta Euskaltzaindiaren hiztegian begiratuta, mekanikan eta infor-

matikan erabiltzen dela adierazten da honela:

mihiztatu, mihizta, mihiztatzen

1 du ad. Mekan. Bi pieza ahokatu, baten mihia bestearen ahoan sartuz. *Elkarrekin mihiztaturiko oholak.*

2 du ad. Inform. Hizkuntza sinbolikoan dagoen programa makinak uler dezakeen lengoaiara itzuli.

Informatikan, konputagailuen portara kontrolatzeko idazten dira programak eta horretarako programazio lengoaiak erabiltzen dira. Hizkuntza sinbolikoa edo goi mailako programazio lengoaiak gizakiontzako maneigarriagoak dira, baina konputagailuek ez dituzte ulertzen!

—Itxoin, nola esan duzu? Konputagailuek ez dutela ulertzen programa horietan esaten zaiena? Eta orduan, nola lortzen dute bertan eskatzen zaiena egitea?

—Konputagailuek bitarra (batekoak eta zerokoak) baino ez dute ulertzen eta gainera konputagailu bakoitzak bere kode espezifikoak erabiltzen ditu. Horregatik, goi mailako lengoian programatu eta gero kode horiek itzuli behar dira. Lehenengo mihiztadura-lengoaiara eta gero kode bitarre-ra.

Kathleenek lehen mihiztadura-lengoaia sortu zuenean oraindik ez zen goi mailako lengoaiarik existitzen.

Lehen konpiladorea urte batzuk beranduago sortu zen. Baina hori ez zen zailtasuna izan Kathleenek lanean jarrai zezan eta gaur egungo Adimen Artifizialaren lehen urratsak egin zitzaion, hain zuzen ere, gaur egun horren lagungarri zaizkigun itzultzaile automatikoen lehen urratsak ere berak eman baitzituen.

Eta ni orain dela gutxi arte haren berri izan gabe! Hau da hau! •



Kathleen Booth, Xenia Sweeting eta Andrew Booth, ARCan lanean 1946an. BIRKBECK

BEHATXULO[TIK

Juantxo EGAÑA



JOSE MARTINEZ BERASAIN. NAFARROAKO ARTXIBO NAGUSIA.

LANGILE NAFARRAK, JOSE MARTINEZ BERASAIN KARLISTAREN KAMERA AURREAN

Jose Martinez Berasain (1886-1960) Iruñeko argazkilari amateurra izan zen. Bere familiak Nafarroako Artxibo Nagusiari dohaintzan emandako argazkiek Nafarroako landa giroko irudiak, azpiegiturak, santutegiak eta herrietako ikuspegi ezberdinak jasotzen dituzte. Bere funtsean, sanferminetako eta familia giroko irudiek ere garrantzia dute. Guztira, XX. mendearen lehen herenean ateratako 376 argazkik osatzen dute funtsa. Jose Martinez Berasain Banco de Bilbaoko zuzendaria izan zen Iruñean, baita "El Pensamiento Navarro" egunkariko administrazio kontseiluko lehendakaria ere. Emilio Molarekin batera 1936ko uztailean altxamendu faxista prestatu zuen Nafarroako Batzorde Karlistako buruzagietako bat izan zen: milaka euskaldun erbestera, kartzelara eta heriotzara eraman zituen altxamendua. Artikuluak erakusten duen irudia XX. mendearen lehen herenean egina dago eta, ermita baten aurrean, hainbat erreminta dituen langile talde bat ikusten da. Ez dakigu Nafarroako geografiako zein puntutan dagoen egina argazkia.

Aspalditik gatoz, urrutira goaz

Urte berri on!



GAUR8

